



**BIZITEGI-BAZTERKETA
EGOERAN DAUDEN
EMAKUMEEN
ERREALITATEARI
BURUZKO IKERKETA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES





**BIZITEGI-BAZTERKETA
EGOERAN DAUDEN
EMAKUMEEN
ERREALITATEARI
BURUZKO IKERKETA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2019ko apirila

Ale-kopurua:

200 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enpleguko eta Gizarte Politiketako saila

www.euskadi.eus

Egileak:

BIZITEGI Elkarte

Sonia Carrasco Fernández
Miguel Angel Navarro Lashayas
Itziar Gandarias Goikoetxea
Pablo Ruiz Errea

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa:

Printhus

L.G.:

VI 252-2019

Aurkibidea

SARRERA	7
Ikerketa egiteko arrazoiak	7
Ikerketaren helburuak	7
Helburu orokorra	7
Helburu espezifikoak	7
Bizitegi Elkartearen aurkezpena	8
Misioa	8
Ikuspegia	8
Balioak	8
ESPARRU TEORIKOA: BIZITEGI-BAZTERKETA GENERO-IKUSPEGITIK	9
Nola heldu dioten nazioarte-mailan etxerik gabeko emakumeen arazoari	9
Etxerik gabeko emakumeen biktimizazioa	10
Baliabide falta eskaera faltaz?	12
Etxerik gabeko emakumeekiko esku hartze espezifikoa	13
Interseksionalitatea	15
Euskadiko egoera	16
Zenbatespena	16
Ezaugarriak	18
BIZITEGI-BAZTERKETA EGOERA LARRIAN DAUDEN EMAKUMEEN ERREALITATEARI BURUZKO IKERKETA KUALITATIBOA	21
A) LANTALDEA BIZITEGIKO HEZITZAILE-TALDEAREKIN	21
1. Bileraren eta parte hartzeko tailerraren garapena	21
Helburuak	21
Metodologia	21
2. Lortutako emaitzak	23
Emakumeen profila eta ezaugarriak	23
Haien egoerari eragiten dioten faktoreak	23
Bizitegi-bazterketaren ondorioz jasaten dituztenak	24
Bizitegi-bazterketa egoeratik irteteko izaten dituzten zailtasunak	24

3. Landa-lanean lortutako emaitzen analisia	25
Bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden emakumeen zenbatespena eta ezaugarriak	25
Haien egoerari eragiten dioten faktoreak	26
Ikusezintasuna eta etxerik gabeko emakumeei arreta egiteko baliabide falta	27
Genero-indarkeria	28
Lan emozionala	29
Emakume taldeak	30
Familien presentzia	30
Hezitzaile-taldeen proposamenak eta hobekuntza-ekintzak	31
B) LANTALDEA BILBOKO UDALEKO GIZARTE-LANGILEEKIN ETA GIZARTE-LARRIALDIETARAKO UDAL ZERBITZUKO TEKNIKARIEKIN	32
Gizarte-larrialdietarako Udal Zerbitzura iristen diren gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak	32
Eguneroko lanean izaten dituzten arazoak	32
Gizarte-langileen eta Gizarte-larrialdietarako Udal Zerbitzuaren proposamenak arreta hobea eskaintzeko	34
GOMENDIOAK	35
Gomendio orokorrak	35
Gomendio espezifikoak	36
BIZITEGI-BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEKIN IZANDAKO LAN-ESPERIENTZIAK	37
1. MUJEREANDO (Sevilla)	37
2. SAN ISIDRO (Madril) ATERPETXEKO ETXERIK GABEKO EMAKUMEEN SINTOMATOLOGIA EMOZIONALEAN ESKU HARTZEA	39
3. MORADAS ELKARTEA EMAKUMEEN GIZARTE-INKLUSIOAREN ALDE (Madril)	39
4. ESPAI ARIADNA-SALIENDO DEL LABERINTO ETA METZINERS PROIEKTUA (Bartzelona)	41
Zer da Espai Ariadna?	41
METZINERES PROIEKTUA: Entornos de Cobijo para Mujeres que Usan Drogas Sobreviviendo a Violencias (Bartzelona)	43
BIBLIOGRAFIA	45

Agurra



Non bizi ez dutenak ez daude denak egoera berdinean. Bakoitzak, gizon edo emakume izan, bere errealitate berezia du, beti dinamiko eta aldakorra. Horren arabera, ez kausa ez tratamendua ere ez dira berdinak. Kalean bizi den bakoitzak bere historia duenez atzetik, bakoitzari bere erara erantzun behar zaio. Baina hori hala izanda ere, non bizi ez duten emakumeek egoera arriskutsu gehiago jasaten dituzte, emakume izate hutsagatik.

Euskadin, non bizi ez duten emakumeak are eta baztertuago daude gizartean, oro har, eta gehiago sufritzen dute osasunez, baita harremanetan ere, gizonezkoek baino. Gainera, esanda bezala, kalean lo egiteak arrisku gehiago eragiten die emakumei. Duela gutxiko txosten baten arabera, kalean bizi diren emakumeen % 20ak aitortu du inoiz eraso sexualen bat jasan izana, gizonezkoetan, ordea, % 2ak besterik ez. Are gehiago: emakumeen % 49k dio iraindu edo mehatxatu egin dutela inoiz, % 45ari dirua edo gauzaren bat lapurtu diote, eta % 30ak eraso fisikoak jasan ditu.

2018-2021 eperako Etxegabeen Euskal Estrategiak dagoeneko aurreikusita dauka genero-ikuspegia txertatzea beharrezkoa izango dela etxerik ez duten emakumeen premia espezifikoak kontuan hartzeko. Hain zuzen, esku-hartzeak bene-benetan indibidualizatzea, alegia, bakoitzaren premien arabera erantzutea, funtsezko elementua izango da generoaren ikuspuntutik.

Ikerketa horren ondorioak oinarri ditugu gure inguruko errealitatea ezagutzeko, aldakorra eta kasuz kasu ezberdina izanagatik ere, behin eta berriz kalte-arriskua eragiten duelako, eta guk arrisku hori ebitatu nahi dugulako.

Horretarako, bost gidalerro zehatz markatu ditugu gure estrategian:

Lurralde Historiko bakoitzeko Gizarte Zerbitzuetako Mapak egiteko garaian, egileei iradokitzea egoitza-zentroetako leku batzuk kalean bizi diren emakumeek, haiek bakarrik, erabiltzeko gorde ditzatela.

Esku-hartze sozioedukatio nahiz psikosozialen zerbitzuetako profesionalen espezializazioari bultzada ematea, bai eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako kasuetan gestio-lanak egiteko ardura duten profesionalen espezializazioari ere, batik bat, non bizi ez eta larri dauden emakumeei orientazioa eta laguntasuna ematen jakin dezaten.

Non bizi ez eta larri daudenentzako zentro guztietan genero-ikuspegia txertatzeko praktika egokien inguruko gida edo eskuliburuak prestatzeko ahalegina egitea, zentro mistoak ere gai izan daitezen emakumeen premia espezifikoek behar bezalako erantzuna emateko.

Non bizi ez eta larri daudenei laguntzen jarduten diren erakundeetarako berdintasun-planak egiteari bultzada ematea, berdintasuna ziurtatuta egoteko aldera bai profesionalen artean bai eta erabiltzaileen artean ere.

Non bizi ez eta larri dauden edo egon diren emakumeek elkarri laguntzeko taldeak sortzeko ahalegina egitea.

Gidalerro horiek mamitzeko lan egin behar dugu eta kalean bizitzeak dakartzan egoera latzenak eta begi-bistakoenak pairatzen dutenei laguntzen ahalegindu, erakundeon ardura baita. Gainerako erakundeekin batera egin nahi dugu ahalegina.

2018-2021 eperako Etxegabeen Euskal Estrategiak erakundeen adostasun handia bildu zuen estrategia lantzeko, eta etxerik gabe daudenen strategiaren jarraipen- eta ebaluazio-batzordeko kideok (gai hauetan eskumena daukaten Euskadiko herri-administrazioko ordezkari eta Hirugarren Sektore Sozialeko ordezkariok) adierazpena sinatu genuen kalean bizi direnen kontrako eraso, intolerantzia eta gorrotoaren aurka. Bagoaz aurrera pausorik pauso. Eta joango gara aurrerago.

Beatriz Artolazabal Albeniz
Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburua

Sarrera

IKERKETA EGITEKO ARRAZOIAK:

Bizitegi elkartekook urteetako esperientzia dugu etxerik gabeko pertsoneri arreta eskaintzen, eta bereziki kezkatuta gaude egoera horretan dauden emakumeak direla eta:

- Bai kalean, bai arreta-zerbitzuetan, gizonezkoen ehuneko askoz ere handiagoa da. Ikusten dugu badirela emakume asko, bazterketa eta babesgabetasun egoera larrian badaude ere, sistemarentzako ikusezinak direnak.
- Kalean topatzen ditugun emakumeek oso bizi baldintza eskasak dituzte eta, normalean, kalteberagoak dira egoera berean dauden gizonak baino.
- Emakume horietako askok, gaiaz mintzatzeko aukera dutenean, sexu-erasoak jasaten edo jasan dituztela kontatzen dute. Ez gutxitan, ongi tratatzen ez dituen (are erasotzen dituen) bikotekide baten ondoan sentitzen dira seguruen.
- Arreta-zerbitzuak gizonezkoen ikuspegitik daude diseinatuta eta ez dituzte behar bezala asetzen emakumezkoen beharrak alderdi oso inportanteetan, hala nola diskrezioa, segurtasuna, intimitatea edo higieena.

Hori dela eta, Bizitegi Elkartean ikerketa sakon bat egitea deliberatu dugu, erantzun hobea eskaini ahal izateko gizarte- eta bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden emakumeei.

IKERKETAREN HELBURUAK:

HELBURU OROKORRA:

Ezagutza erabilgarria sortzea, genero-ikuspegitik heldu ahal izateko bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden pertsonen errealitateari.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Lan-tresna hobek eskaintzea emakumeekiko gizarte-ekintzarako.
- Baloratzea ea etxerik edo etxebizitzarik gabeko pertsonentzako zerbitzuek zer neurritan erantzuten dieten emakumezko erabiltzaileen beharrian espezifikoei, ibilbide pertsonalei eta itxaropenei, noraino egokitzen zaizkien haiei.
- Jakitea zer arrazoi dagoen muturreko bizitegi-bazterketak prebalentzia txikiagoa izateko emakumeen artean.
- Bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden emakumeen errealitatea ikusaraztea.
- Ezagutza erabilgarria sortzea bazterketa-egoeran dauden pertsonen lagun egite sozialerako.

BIZITEGI ELKARTEAREN AURKEZPENA:

Bizitegi irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, eta 1980. urtetik ari da etengabe lanean Bilbon eta Bizkaian gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen alde.

MISIOA:

Elkarte bat gara, bazkideek, profesionalek, erabiltzaileek eta boluntarioek osatua, eta Bizkaian **bazterketa-arriskuan edo bazterturik dauden pertsonak gizareratzea** da gure lana. Horretarako, **lagun egiteko prozesuak** baliatzen ditugu, pertsona horien bizi-baldintzak hobetzeko, bai eta **sentsibilizazio- eta salaketa-ekintzak** ere, gizarte bidezkoago bat eraikitze kontzientzia sorrarazteko. Misio hori gauzatzeko bidean, pertsona hartzen dugu funtsezko balio, eta komunitatea pertsonaren garapenerako leku.

IKUSPEGIA:

Horrelako erakundea izan nahi dugu:

- **Sendoa eta parte-hartzailea**, proiektua osatzen duten pertsona guztien konpromiso handia izango duena eta partaidetzazko gobernantza baten bidez jardungo duena.
- **Eraginkorra eta iraunkorra**, emaitza objektiboak eta neurgarriak lortuko dituena, arduraz erabiliko dituena eskura dituen baliabideak, kudeaketa aurreratuko eredu baliatuko duena eta finantzatze-bideak dibertsifikatu eta berrituko dituena; betiere, misioa beteko dela eta epe luzeko eragina izango duela ziurtatzeko.
- **Ilusioz betea eta berritzailea**, partaide guztien atxikitze gogotsu eta ilusioz betea behar duena, sormenaren bidez jardun-modu berriak eratzeko.
- **Gizartearen erreferentea**, aitortua eta eragiteko gaitasuna izango duena, gizartearentzat erabilgarri izango diren zerbitzuak emango dituena, itun iraunkorrak landuz administrazioekin eta gure helburu eta balio berberak dituzten erakundeekin.
- **Pertsona boluntarioen hartzailea**, gune esanguratsuak sortzeko gai izango dena, bazterketaren aurkako borrokan konpromiso pertsonala eta soziala eskaintzen duten pertsonen ekarpenak jasotze aldera.

BALIOAK:

- **Partaidetza**, proiektuaren funtsezko balioa da, pertsona aintzatetsi eta haren protagonismoa nabarmentzen baititu. Pertsona guztiek elkartearen jardunean eta komunitate-testuinguruetan partaidetza gogotsua izan dezaten sustatzen eta balioesten dugu, norberaren egitekoetatik abiatuta eta proiektu komun baten kontzientzia izanda.
- **Elkartasuna**, pertsonen gaitasunek zentzu eta erabilgarritasun soziala erdietsiko badute, interes komunen zerbitzuan jarri behar dira.
- **Gardentasuna**, zintzotasuna ziurtatzeko estrategia, kudeaketa-lan eta esku-hartzeen prozesuak betetzean.
- **Ardura edo erantzukizuna**, pertsona guztiek jarrera arduratsua izan behar baitute proiektuan eta, gainerako pertsonekin batera, taldeko eta elkarteko prozesuetan parte hartzean.

Lehen zatia

ESPARRU TEORIKOA: BIZITEGI-BAZTERKETA GENERO-IKUSPEGITIK

NOLA HELDU DIOTEN NAZIOARTE-MAILAN ETXERIK GABEKO EMAKUMEEN ARAZOARI

Etixerik gabeko emakumeen gaiak gero eta interes handiagoa sortzen du Europa mailan egiten diren ikerketetan. Emakumeen etxegabetasuna ikertzen duten azterlanen eskasia (Baptista, 2010) eta problematizazio hutsala genero-ikuspegi kritikotik (Fernández-Rasines eta Gámez-Ramos, 2013). Horiek dira, zalantzarik gabe, aipatu behar diren aurkikuntzetako bi, gai honi buruz dagoen literaturaren irakurketa zehatza egiten denean.

Etixerik gabekoekin lan egiten duten erakundeen elkarteak (FEANTSA) zenbait monografiko eta ikerketa argitaratu ditu kolektibo horri buruz. Beharbada, erreferentzia garrantzitsuena 2001ean egindako txostena da (La femme sans-abri en Europe. Parcours, services et expériences), bide bat markatzen baitu herrialde desberdinetan ikerketak egiteko. Migratzaileenarekin batera, emakumeen errealitatea sakon aztertzen da Europako estatistiketan, eta bizi duten egoerari buruzko azalpenak ateratzen dira. Edgar-en (2009) arabera, etxerik gabeko emakume eta gizonen arteko faktore bereizgarriak lau alderditan bana daitezke: estrukturala, instituzionala, erlazionala eta pertsonala. Jarraian, alderdi bakoitza garatuko dugu eta berriki egindako ikerketekin osatuko dugu informazioa.

Alderdi estrukturalan, nabarmena da emakumeen zaugarritasuna handiagoa dela; izan ere, enplegu-tasa txikiagoa dute, kontratu finko eta lanaldi osoko gutxiago, eta batez besteko diru-sarrerak ere txikiagoak (soldadak, kapital-etekinak, kotizaziopeko eta kotizazio gabeko gizarte-prestazioak). Egoera paradoxikoa izan badaiteke ere, lan-esparruan esplotatuago dauden emakumeak gizonak baino hobeto egokitzen dira emakumeak emakume izate hutsagatik esplotatzeko joera duen lan-merkatuaren eskaeretara, eta, ondorioz, batzuetan, prekaritate ekonomiko nabarmeneko hobi bat sortzen da, zailtasunak zailtasun, kaleko egoerak ekidin ditzakeena (Sales et al., 2015). Badirudi emakumeek alternatiba gehiago dituztela kontratazio legaletik kanpo, hala nola etxeko lanak egitea (etxeak garbitzea, orduka edo barneko garbitzaile gisa), mendekotasuna duten pertsonak zaintzea edo, are, prostituzioa. Alternatiba horiek, egokienak edo aproposenak izatetik urruti, baldintza penagarriak baitituzte, bizirik irauteko aukera ematen diete emakume horiei, halako autonomia bat mantendu ahal izatea etxebizitzaren eta diru-sarreraren arloan.

Alderdi instituzionalan, zenbait akats ikusten dira: besteak beste, gizarte-babeseko sistemaren joera nagusiki kontributiboa, emakumeentzako gizarte-zerbitzu espezifikoen falta, joera edo eite maskulinoa zerbitzu orokorretan, genero-ikuspegiaren defizitak gizarte-zerbitzuetako langileek eskainitako arretan, arreta goiztiar eskasa trauma emozional edo antzeko arazoetan, eta arreta integralaren falta. Babes-faktoreetako bat da emakumeek, orokorrean, joera handiagoa dutela instituzioen laguntza eskatu eta onartzeko.

Alderdi erlazionala da, beharbada, gehien garatu dena etxerik gabeko emakumeen egoera azaltzerakoan. Nabarmentzekoak dira indarkeria matxista, biktimizazioari lotutako trauma emozionalen prebalentzia handiagoa (abusuak, bortxaketak, seme-alabak aldentzea edo galtzea) eta prostituzioaren prebalentzia handiagoa nabarmentzen dira, besteak beste. Alderdi horiek aurrerago garatuko ditugu, autore gehienek garrantzi handia ematen baitiete. Babes-faktoreei dagokienez, gehien aipatzen denetako bat da emakumeek familia-lotura estuagoak eta gizarte-sare zabalagoa dutela adierazten duena. Emakumeek, esleitu izan zaizkien genero-

zereginengatik, gizarte-lotura sendoagoak izan ohi dituzte, bai senideekin, bai lan-inguruarekin zerikusirik ez duten hurbileko harremanekin, eta, orokorrean, gaitasun handiagoa erakutsi ohi dute sortzen dituzten harreman-loturei eusteko. Emakumeen eguneroko bizitzako rolen aniztasunak harreman-baliabideak mugiarazteko gaitasun handiagoaz hornitu ohi ditu, premia larriko egoeretan babestu eta kalean amaitu ez dezaten (Escudero, 2003). Zenbait ikerketa (Mayock eta Sheridan, 2012) bat datoz ondorio batean: lagunen eta familiaren babes-sareek huts egiten dutenean bakarrik jotzen dute emakumeek gizarte-zerbitzuetara, etxebizitzarekin lotutako arazoak konpontze aldera.

Lagun, senide edo ezagunengana jotzea babes-faktore bat izan badaiteke ere bizitegi-bazterketa egoera larrienen aurrean, harreman-sare informal horietan berak jartzen dituzte esplotazio eta prekarietate egoeretan etxebizitza bat izateko aukera ez duten emakumeak. Ondorioz, etxegabetasun forma ikusezinak eratzen dira, eta horrek eragin zuzena du emakume horien ongizatean eta bizi-proiektu duin bat eraikitzeke dituzten aukeren egituran (Baptista, 2010, Mayock eta Sheridan, 2012). Egoera horiek zailak dira detektatzen: jende gehiegi duten pisuetan bizitzea, kontraturik gabe, etxean hartzen dituzten pertsonen asmo onaz fidatuta; berralokatutako gela batean bizitzea, segurtasun juridikorik eta bizilekua frogatzeko aukerarik gabe, edo babesa hartzea zaurgarritasun-egoeretan bizi diren senideen etxeetan, horrek dakartzan tentsio handiekin.

Azkenik, alderdi pertsonalari dagokionez, osasun mental txarragoa eta mendekotasun afektiborako joera handiagoa izan ohi dute (sistema patriarkaletik eratorritako mendekotasunaren ondorio gisa). Ikerketa desberdinek egiaztatzen dutenez, emakumeak muturreko etxegabetasun-egoerara heltzen direnean, hondamen fisiko eta mental handiagoa izan ohi dute eta arazo gehiago pilatzen zaizkie, esaterako droga-mendekotasuna, osasun mentaleko arazoak edo batez ere indarkeria matxistarekin lotutako esperientzia traumatikoen bizipena (Moss eta Singh, 2015; Reeve et al., 2006). Egoera horrek luzaroan iraunez gero, handitu egingo litzateke emakumeek mendekotasunak eta osasun mentaleko arazoak garatzeko aukera, edo biziraupen-estrategia gisa sexu arloan lanean hastekoa. (Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos, 2013; Moss eta Singh, 2015). Halaber, ikerketa horien arabera, etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuak ez daude egokituta arazo horiei arreta eskaintzeko, eta, azpimarratzen dutenez, ikuspegi malgu eta berrizailatik heldu behar zaio emakumeen etxegabetasunari, erantzun integrala emateko etxerik gabeko emakumeek dauzkaten era askotako arazoek; bereziki, kalean dauden emakumeen kasuan (Moss eta Singh, 2015; Reeve et al., 2006).

Izaera pertsonaleko babes-faktoreen artean, bi garrantzitsuenak dira, segur aski, beldur izatea etxegabetasunarekin lotutako biktimizazioari eta estigmari. «Babes-faktore» horiei buruz egin daitekeen irakurketa, nolana ere, anibalentea da: espetxeratze-tasa txikiagoa, norbere burua zaintzeko eta laguntza eskatzeko joera handiagoa, emakumeen gizarteratzeak dituen berezitasunekin lotzen dira. Sistema patriarkalak mendeko estatusa ematen dio emakumeari, eta horregatik, emakumeek jasotzen duten heziketak gehiago azpimarratzen du arauak obeditzea gizonenak baino, eta horrek emakumeen espetxeratze-tasa txikiagoa ulertzen lagunduko luke. Norbere burua gehiago zaintzeko eta laguntza eskatzeko joerak zerikusia du emakumeek amatasun eta hazkuntzarekin identifikatzearekin. Ondorioz, gizona bakoak baino gehiago izaten dira sozializatuak beste pertsonak eta beren burua zaintzeko, eta horrek arrisku-jardunbide jakin batzuk geldiarazi edo ekiditeko portaerak dakartza berekin.

ETXERIK GABEKO EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOA

EEtxerik gabeko emakumeen biktimizazioari dagokionez, funtsezkoa da bereiztea, alde batetik, etxegabetasunaren aurretik gertatu eta egoera hori ekar dezaketenak, eta, bestetik, ondoren gertatu direnak. Bereizketa hori baliagarria da etxerik gabeko emakumeen egoera azaltzeko bereziki garrantzitsuak diren faktore batzuk nabarmentzeko (indarkeria matxista, esaterako), baina mugak ez dira oso garbiak eta zenbait gertakari berdin jazotzen dira etxerik gabe gelditu aurretik eta ondoren.

Banantzeak eta bikotekidearekiko arazoak, abusuak, familiaren barneko indarkeria eta indarkeria matxista faktore eragile garrantzitsutzat hartu dira emakumeen etxegabetasuna eragiten dutenen artean (Moss eta Singh, 2015; Reeve, 2006; Fernández-Rasines eta Gómez-Ramos, 2013; Cramer, 2002; Marpsat, 2000). Lotura hori ikertu denean, egiaztatu da oso altua dela kalean bizi diren eta bikotekidearen aldetik tratu txarrak jasan dituzten emakumeen proportzioa. 2015ean Irlandan egindako ikerketa batean (Mayock et. Al. 2015), inkestari erantzun zioten emakumeetatik (etxerik gabeko pertsoneri zuzendutako zerbitzuetan artatu zituztenak), % 92k nolabaiteko indarkeria fisikoa edo sexu-abusua jasan zuten helduak zirela. Suedian, emakumeak etxerik gabe bizitzeko arrazoi nagusia bikotekidearen eraso fisikoetatik ihes egitea da (Sahlin, 2004). Estatistikako Instituto Nazionalaren arabera (EIN, 2005), etxerik gabeko hiru emakumetatik batek erasoak jasan zituela adierazi zuen, eta ia % 13k zioen sexu-erasoak jasan zituztela etxegabetasun egoeran zeudenetik. Ehuneko horiek askoz ere altuagoak dira parte hartu zuten gizonezkoei dagozkienak baino. Bartzelonan egindako ikerketetan agerian gelditu zenez, indarkeria matxistatik ihes egitearren eremu eta sare sozialak hautsi behar izateak ahuldu egiten du emakumeek alternatiba informaletara jotzeko duten gaitasuna, aldi baterako bizitegi-bazterketa egoera bat arindu ahal izateko (Salas et. al. 2015).

Bestalde, hausturak eta banantzeak ahultasun-faktore garrantzitsua dira emakumeentzat, ezegonkortasun ekonomiko handiagoa baitute, bai eta bikotekide maskulinoaren diru-sarreraren mendekotasun handiagoa ere, lan-merkatutik kanpora egonez gero (Doherty, 2005; Baptista, 2010). Beste alde batetik, azterketa askoren arabera, indarkeria matxistak, bikotearren barrukoak batez ere, bere garrantzia du emakumeak etxegabetasun-egoerara heltzeko faktore eragile gisa. Hala, Fernández-Rasines eta Gámez-Ramosen (2013) esanetan, indarkeria ardatz egituratzaile gisa agertzen da etxerik ez duten emakume askoren bizi-ibilbideetan. Era berean, ikerketek erakusten dutenez, familia barneko indarkeria eta desegituratutako familia izatea faktore garrantzitsuak dira emakumeen etxegabetasuna azaltzeko.

Bizitzako Gertakari Estresagarriei (aurrerantzean BGE) erreparatuz gero, emaitzek adierazten dute etxerik gabeko emakumeek BGE asko jasaten dituztela bizitzan zehar; batez beste 11 gertakari gutxi gora-behera. Datuen arabera (Vázquez, Rodríguez, Roca eta Panadero, 2016), etxerik gabeko emakumeen erdiak baino gehiagok jasan dute gaixotasun, lesio o istripu larriren bat (% 69), langabezia arazo larriak (% 77,5), arazo ekonomiko handiak (% 83,3), tratu txarrak ezkontide edo bikotekidearen aldetik (% 56,5), edota indarkeria fisikoa helduaroan zehar (% 52,2). Kontsumoarekin lotutako arazoei dagokienez, % 35,5ek adierazi zuen gehiegi edan zuela eta % 37k drogak kontsumitu zituela bizitzan zehar. Osasun mentolarekin zerikusia duten gertakariak aztertzean, datuen arabera, emakumeen % 28,3 ospitale psikiatriko batean ingresatuta egon dira, % 37k osasun mentaleko arazo larriren bat jasan du eta % 48,6 bere buruaz beste egiten saiatu da. Gainera, % 45,7 banandu edo dibortziatu egin dira. Emakumezkoen gertakari espezifikoiei dagokienez, emakumeen % 46,4 haurdun geratu dira nahi izan gabe, % 58,7k abortua izan du (nahita edo nahi gabe) eta % 20,3 ama izan dira bikotekide baten babesik gabe.

Ez dago zalantzarik horrelako bizipenek zuzenean eragiten diotela emakume horien osasun mentalari, eta ahuldu egiten dutela besteekin fidatzeko, bizitza autonomo bat izateko eta harreman osasuntsuak mantentzeko gaitasuna. Arazo horiek larriagotzera datoz, gainera, droga- edo alkohol-abusua edo bizirauteko lan sexualen bat egitea (Pleace, Beetherton, 2013). Beraz, badirudi beldurra eta segurtasun faltaren sentipena faktore erabakigarriak direla estrategia alternatiboak bilatzeko eremu publikoan lo egitea edo laguntza instituzionala onartzea saiheste aldera (Escudero, 2003; Pleace et. al. 2013). Aldi batez, luzaroago edo laburrago, kalean bizi izan diren emakumeek jazarpen egoerak aipatzen dituzte, gutxi-asko sarriak eta gogorak. Askotan, kalean lo egiten duten emakumeek taldeko estrategiak erabiltzen dituzte segurtasun sentipena areagotzeko, bai beste emakume batzuekin batuta, bai gizonezkoen taldeetan sartuta. (Sales et. Al. 2015).

BALIABIDE FALTA ESKAERA FALTAZ?

Etxegabetasunaren fenomenoak bada kalean edo egoitza-baliabideetan lo egiten duten pertsonetara, ikusezin bilakatzen da etxerik gabeko emakumeen problematika (Pleace, 2016). Etxerik gabekoen artean emakume gutxiago egotea gutxienez deigarria da, kontuan hartzen bada emakumeek desabantaila handiagoak dituztela, sozioekonomikoki, gizonekin alderatuz gero. Gizarte-zerbitzu publikoen eta erakundeen erregistroen kudeaketa-logikaren arabera, etxegabetasuna kalean lo egitearekin edo aterpetxez baliatzearekin soilik lotzen da. Era berean, Europako herrialde askotan gaua kalean edo zentro espezializatu batean pasatzen duena hartzen da etxerik gabeko pertsonatzat eta, ondorioz, eremu publikoan eraginik ez duen bizitegi-bazterketa ikusezin bihurtzen da.

Horrez gain, fenomenoak problematizazio hutsala izan du genero-ikuspegi kritikotik. Etxegabetasunari buruzko azterlan gehienek genero-ikuspegirik ezaren ondorioz, beraz, egoera horretan dauden emakumeen kopurua ez da behar bezala haztatu. Azterlan horiek, hortaz, faltan dute hierarkizazio sozialaren kategoria garrantzitsuenetako bat. Egin-eginean ere, Euskadiko pobrezia eta gizarte-bazterketari buruzko inkesta nagusiek (pobrezia eta gizarte-aztertasunen inkesta, Eusko Jaurlaritzarena, eta bizi-baldintzen Inkesta, Eustatena) ez dute genero-analisirik egiten, eta haien txostenetan ez dituzte datuak sistematikoki bereizten sexuaren arabera (De la Cal 2007). Foessa Txostenak ere, Euskadirako lagin bat diseinatu baitu azkeneko edizioan, ez du genero-ikuspegia txertatzen.

Ikusezintasun horren emaitza nabarmenetako bat da etxerik gabeko pertsonen laguntzeko politikak diseinatu direla ikuspegi maskulino batetik, eta pentsatuta daudela bizitegi-bazterketa egoeran egonda eremu publikoan denbora gehien pasatzen dutenentzat. Hori dela eta, zenbatetsi eta zehazteko moduko bizitegi-bazterketaren formak izan dira, historikoki, arreta-zerbitzuak sortzea eragin dutenak.

Etxegabetasuna genero-ikuspegitik aztertu denean, ezaugarri espezifiko batzuk identifikatu dira, emakumeen bizitegi-bazterketa larriko esperientziak taxutzen dituztenak. Hau izan da azterlan horien aurkikuntza garrantzitsuenetako bat: fenomeno honek emakumeen artean ezkutuko izaera hartzen duela egiaztatzea (Edgar eta Doherty, 2001). Ezkutuko etxegabetasuna aipatzen delarik arazo honek emakumeen kasuan hartzen duen adierazpide espezifiko gisa, hau erakutsi nahi da: emakumeek, egozten zaizkien genero-ezaugarriengatik, gizonenak ez bezalako ostatu-moduak izango lituzketela, eta, hartara, estrategia jakin batzuk erabiliko lituzketela, bereziki arriskutsuztat hartzen dituzten gune batzuk saihesteko, hala nola kalea eta harrera egiteko aterpetxe jakin batzuk. Zentzu horretan, Emakunde oraintsu egindako ikerketa batek (2016), Euskadin bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeen errealitateari buruzkoa bera, agerian uzten ditu gizarte-bazterketaren eta etxebizitza gabeziaren problematikan esku hartzen duten askotariko faktoreak. Emaitzen artean, azpimarratzen da emakumeek gehiago jotzen dutela, gizonen baino, aldi baterako ostatua hartzea senide edo lagunentzako, edo, are, prest egongo liratekeela familiarteko tratu txarrak edo abusuak luzaroago jasateko.

Suedian egindako ikerketa batzuen arabera, emakumeek etxerik gabeko pertsonen zuzendutako gizarte-larrialdietarako aterpetxeak eta egoitza-baliabideak saihestearren arrazoia da kaleko bizitza prostituzioarekin lotzen duen estigma soziala (Pleace et al. 2016). Bartzelonan etxegabetasun egoeran egon diren emakumeen egindako elkarrizketek agerian uzten dute bi alderdi horien arteko lotura asko nabaritzen dela (Salas et al. 2015).

Bibliografiaren arabera, hauek izango lirateke emakumeek etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuak ez erabiltzeko arrazoi nagusiak (Emakunde, 2016):

- Biktimizazioari beldurra erabiltzaile gehienak gizonak diren baliabideetan.
- Etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzeko baliabide orokorretan erabiltzaile gehienak gizonak izatea, eta baliabideen egokitzapen eskasa emakumeen behar espezifikoetara.
- Gizarte-zerbitzuen erabilerari lotutako estigma.

- Hautematea zerbitzuak ez direla beren beharretara egokitzen edo haien profila ez datorrela bat artatzen dituzten profilekin. Horren haritik, nabarmena da seme-alabak dituzten amentzako oso toki gutxi daudela eta gainera bikoteak edo maskotak onartzen dituzten zerbitzuetan ostatu hartzeko zailtasuna hautematen da.
- Existitzen diren zerbitzuak eta horiek erabiltzeko duten eskubidea ez ezagutzea.
- Emakumeei egotzen zaien rol soziala sendo lotzen zaie ama eta emaztearen egitekoei, etxeko eremu pribatuan egiten diren bi funtzio. Beraz, genero-baldintzatzaile horien ondorioz, emakumeek gutxi ikusten diren etxegabetasun-moduak erabiltzen dituzte, segurtasun pertsonaleko estrategia bezala ez ezik, norbanakoaren aukera baten zati bezala ere, ez nabarmentzen saiatzen baitira, kalean egon arren.

Eskozian egindako ikerketa batean (Webb 1994), lau ibilbide identifikatzen dira emakumeen ezkutuko etxegabetasunera heltzeko:

- Etxegabetasunaren ibilbidea: emakumeak etxerik gabeko pertsona bezala aurkezten dira gizarte-zerbitzuen aurrean, baina ez zaie estatus hori ematen.
- Gizarte-prestazioen ibilbidea: beren eskaerak ostatu hartzeko eskaera soiltzat hartzen dira, eta ez etxegabetasun-kasutzat.
- Ez eskatzearen ibilbidea: emakumeek ez dute laguntzarik eskatzen eta etsi egiten dute egoera jasanezin batean.
- Ibilbide instituzionala: emakumeak luzaroan bizi izaten dira baliabide espezializatuan, ez baitago beste bizitokirik haientzat.

ETXERIK GABEKO EMAKUMEEKIKO ESKU HARTZE ESPEZIFIKOA

Etxegabetasun egoera oso maskulinizatuetan jartzen dutenez arreta, etxerik gabeko pertsonen laguntzeko politikak esku hartzeko metodologia eta zerbitzu sorta bat definitu dute, hobeto egokitzen zaizkienak tradizionalki maskulinoak diren bizi-estiloekin lotutako beharrei, bizi-estilo femeninoei baino. Ekipamenduen diseinu androzentrikoak baldintzatzen ditu bizitegi-bazterketa egoeretan bizi diren emakume eta gizonen jokabide-ereduak eta larrialdietako egoitza-baliabideekin duten harremana, emakumezkoak gutxiengoa direlako nabarmen (Pleace et. al. 2016). Etxerik ezak eragiten duen beldurra eta intimitate faltaren sentipena oso bizirik mantentzen dira baliabide mota horiek erabili behar dituzten emakumeen artean (Salas et. al. 2015) eta, beraz, etxerik gabe dauden emakumeen egoera kronifikatu egiten da.

Ingurune maskulino batean bizitzearen deserosotasun materialaz gain, etxerik gabeko emakumeek estigmatizazio bikoitza jasaten dute. Pobrezia-egoera kalean bizitzearen estigmari, horrenbestez, etxe inguruko zaintzaile eginkizuna ustez alde batera utzi izanak dakarrena gehitzen zaio. Familia-harremanak hausterainoko gainbehera hori porrot pertsonal gisa bizi dute etxerik gabeko emakumeek, baita haien ingurukoek ere (Van den Dries et. Al. 2016). Haustura hori betikotu eta larriagotu egiten da egoitza-ekipamenduek zaildu edo oztopatuz gero harreman horiek berreraikitzea. Egoitza-baliabide publiko eta pribatuetan intimitate-eremurik ez egoteak atzeratu egiten du familia-harremanak berrezartzeko prozesua. Artatzen den pertsonak ezin badu ekipamendua bere etxetzat hartu, oso zaila izango da intimitate-eremu bilakatzea.

Emakumeen etxegabetasunaren erreferentzia-lantzat hartzen den eta kapituluaren hasieran aipatu dugun liburuan (Edgar eta Doherty, 2001), bi modu bereizten dira European emakumeei arreta eskaintzeko: espezifikoki emakumeentzako diren zerbitzuak eta zerbitzu orokorrak. Baliabide orokorrek ustez genero-neutraltasuna daukaten arren, adostasun argia dago esaterakoan gizonak hartzeko pentsatuta egon ohi direla, eta ez dituztela betetzen etxerik gabeko emakumeen beharrian bereizgarriak. Ildo horretatik, gizarte-zerbitzuak eta, oro har, gizartea

inguratzen duten androzentrismoa baino ez dute islatzen baliabide horiek, eta hori larriagotzera dator etxerik gabeko biztanleriaren artean emakumeek talde txikia izatea.

Ikerketa gehienak bat datoz, beraz, emakumeentzako zerbitzu espezifikoaren garrantzia nabarmentzean, bereziki indarkeria matxistaren biktima izan badira, baina horrek ez du esan nahi zerbitzu orokorretan ere behar diren egokitzapenak eskatu behar ez direnik, emakume zein gizonen bidezko arreta eskaintzen dietela bermatzeko. Nolanahi ere, Edgar eta Dohertyren (2001) ustez, hiru faktorek mugatzen dute emakumeentzako baliabideen garrantzia: Jarraian aztertuko ditugu, eta, horretarako, kontuan hartuko ditugu Euskadiko egoerari buruzko datu batzuk, aurrerago garatuko ditugunak (Emakunde, 2016):

1. **Eskaintzaren eskasia:** Etxerik gabeko pertsonen laguntzeko zentro eta zerbitzuen inkestako azken datuen arabera, Euskadik etxerik gabeko pertsonen arreta egiteko duen sarea Estatu osoko onenetako bat da. 2014ko inkestaren datuek diotenez, Euskadin etxerik gabeko pertsonen arreta egitera bideratutako 195 zentro aterpe eta guztikoetan eskaintako tokien ia hiru laurdenak (% 73,4) mistoak dira; alegia, gizon zein emakumeen eskaintzen zaizkie. Gainerako tokiak (existitzen diren 2.771 plazetatik 737) eskusiboki gizonen (% 12) edo emakumeen (ia % 15) eskaintzen zaizkie. Ostatu hartzeko lekurik ez duten gainerako zentrotan dagokienez, hau da, jantoki sozialei, eguneko zentrotan edo kaleko esku-hartzeari dagokienez, emakume zein gizonen eskaintzen zaie arreta, bereizketarik egin gabe Euskadin dauden 21 aterpetxe edo gaueko harrera-zentroetatik, 19k toki mistoak eskaintzen dituztela adierazten dute eta 2k gizonentzako tokiak bakarrik eskaintzen dituzte. Euskadin, gaueko harrera-zentro eta aterpetxeen kategoriako hiru zentrotan gutxienez gordetzen dira emakumeentzako plazak. Horietako bat Gasteizko Aterpe gaueko zentroa da (dituen 32 lekuetatik 3 emakumeentzako dira); bigarrena Bilboko Elejabarri udal-aterpetxea da (71 lekuetatik 16 emakumeentzako gordeta daude); eta hirugarrena Errentariako Gaztetxuloa da (23 lekutatik 3). Aldi baterako abegi-etxeetan emakumeentzako gordetzen diren tokien proportzioa % 22,7 da; egonaldi mugagabeko etxeetan, aldiz, % 6,4 soilik. Bereziki gizonen zuzendutako tokiak egonaldi mugagabeko pisuetan eskaintzen diren toki guztien ia % 37 dira, eta aldi-baterako pisuetako tokien % 11.
2. **Etxerik gabeko emakumeen profil oso zehatzetan arreta jartzea: ama ezkongabe gazteak eta genero-indarkeria jasan duten emakumeak.** Emakumeentzako bakarrik diren baliabideen aldarrikapena: horra aztertutako literaturan etengabe agertzen den eskaria. Eskaera hori, azterlanetako ondorioetan ez ezik, ikerketetan parte hartu duten etxerik gabeko hainbat emakumeren iritzietan ere adierazten da. Emakume horietako askok beldurra edo mesfidantza izaten dute baliabide misto batean ostatu hartzeko aukera dutenean (Perez, 2014), bereziki genero-indarkeriaren biktimak baldin badira. Sentimendu horiek, osasun eta ongizaterako kaltegarriak izateaz gain, beste oztopo bat gehiago dira ahalduzko-prozesuetan eta emakume horiek dituzten arazoak gainditzeko prozesuetan. Horren haritik, gaiari buruzko bibliografian salatzen da baliabide mistoen diseinu eta funtzionamenduak ez duela emakumeen beharrak kontuan hartzeko ohiturarik, genero-joera edo-eitearekin sortuta daudelako. Bibliografia espezializatuak emakumeentzako bakarrik diren gune eta programak eskatzeko azken arrazoa da berdin artean laguntza-harremanak sortzeko aukerak biderkatzen direla, bai adostutako jardueren bidez, bai elkarrekintza informaletan zehar.
3. **Arreta integralaren falta.** Zerbitzu espezializatu gehienak genero-indarkeria jasan duten emakumeengana eta beren ardurapean adingabeak dituzten emakumeengana bideratu dira, eta horrek azaltzen du profil horiek sakon aztertu izana, nahiz eta ikerketak gutxitan planteatzen diren etxegabetasunaren ikuspegitik.

Etxegabetasuna birdefinituz gero, etxebizitza lortzeko aukera faltaren ondorioztat hartuta eta ETHOS sailkapenean deskribatutako egoera desberdinen arteko harremana ulertuta, aukera izan behar da gizarte-arretarako zerbitzu eta politiken antolakuntza baldintzatzen duten "ontzi estankook" apurtzeko. Gizarte-zerbitzuak zentratu behar badira pertsonengan eragina duten askotariko problematiketan, ezin zaie tratamendu-diferentziei eutsi, profesionalen artatutako

pertsonen egoera kalifikatzeko hautatu dituzten etiketen arabera. Ezagutza enpirikoak gonbita egiten digu «etxerik gabeko emakumeak», «indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak» edo «pobrezia energetikoan bizi diren emakumeak» artatzeari utzi, eta bizitegi-bazterketan eragina duten askotariko faktoreei heltzeko genero-ikuspegi transbertsal edo zeharkako batetik.

INTERSEKZIONALITATEA

Etzegabetasun egoeretan gertatzen diren prozesuek, ibilbideek eta ereduak badute paralelotasun bat baztertu gabeko gizarte-harremanekin. Hau da, ez dira eredu kultural eta desberdintasun nagusietatik kanpo kokatzen. Zentzu horretan, etxerik gabeko emakumeen ibilbideak eta gizonezkoenak desberdinak dira, kuantitatiboki gutxiengoa izateagatik ez ezik, gizarte-egiturak ezarritako rol kulturalen eraginagatik ere (Farre, 2014). Emakumeek desberdintasun eta desabantaila batzuk jasaten dituzte, gizonekiko mendekotasun egoeran jartzen dituztenak, eta egungo gizarte-egitura patriarkalaren testuinguruan ulertu behar direnak.

Lehen aipatu dugun bezala, gizarte-bazterketaren arloan egin diren ikerketen arabera, bazterketa egoera gero eta larriagoa, orduan eta gutxiago pentsatua emakumeei eskaintzen zaien irtenbidea. Larritasun eta konplexutasun hori bazterketaren izaera multidimentsional eta heterogeneoaren adierazle da; bazterketa, berriz, interseksionalitatearen kontzeptuarekin lotuta ulertu behar da (Crenshaw, 1989).

Interseksionalitatearen tresnak aukera ematen digu aztertzeko zer nolako lotura edo harremana duten kategorizazio- eta desberdintze- ardatzek (generoa, etnia, sexualitatea, klasea, posizioa, dibertsitate funtzionala, adina edo prestakuntza maila, besteak beste) konektatuta baitaude, era konplexuan teilakatuta edo inbrikatuta, menderatze-prozesuetan (Platero, 2012). Beraz, interseksionalitateak erakusten digu generoa ez dela diskriminazioaren ardatz bakarra eta emakume guztiak ez daudela berdin deskriminatuta eta, ondorioz, emakumeen gizarte-bazterketako esperientziak ezin direla homogeneizatu (Hill-Collins, 1993; Lorde, 1984). Hau da, generoaz gain, gizarte-bazterketa bizi duten emakumeen errealitatean badira beste faktore baldintzatzaile sozial batzuk —hala nola substantzien kontsumoa, etnizitatea, aukera afektibo-sexuala edo estigmatizatutako gaixotasunak—, zaurgarritasun-baldintza espezifikoak eta situazionalak eragiten dituztenak, eta gizarte-zerbitzuek modu espezifiko eta integralean ekin behar diete haiei.

Horregatik, nahitaezkoa da aitortzea bazterketa egoeran dauden emakumeek askotariko arazoak bizi dituztela, zailtasun asko dituztela aldi berean, elkarri lotuak eta elkarri eragiten diotenak (Weldon, 2008). Horrekin guztiarekin, erronka bat sortzen da: ikuspegi interseksionala txertatzea esku-hartze sozialerako politikak diseinatu eta gauzatzekoan, gizarte-bazterketa jasaten duten pertsona guztiei laguntza edo arreta integrala eman ahal izateko. Kontuan izan behar da egoera desberdina izango dela diskriminazio-ardatzen arteko harremanaren arabera (generoa, klasea, adina, jatorria, egoera zibila, osasun fisiko eta mentala, egoera administratiboa eta sexu-identitatea, besteak beste) eta sortzen diren arazoak eta zailtasunak ere desberdinak izango direla, zer testuingurutan eta noiz sortzen diren.

Konplexutasun horrek zaildu egiten du behar bezala jardutea, problematiken justaposizioak espezializazio eta ezagutza maila transbertsala izatea eskatzen baitu, eta faltan izaten da, askotan, esku-hartze sozialerako erakundeetan (Farre, 2014). Horregatik da funtsezkoa etxerik gabeko emakumeekiko esku-hartze sozialaren fenomenoaren pentsatzea desberdintasunen heterogeneotasunetik eta interseksionalitatetik ikustea, eta, hasteko, androzentrismoa eta esentzialismoa ezabatzea dagoeneko baditugun baliabideetatik.

EUSKADIKO EGOERA

ZENBATESPENA

Hemen aurkeztuko ditugu Euskadin genero-ikuspegitik aztertu diren datu bakarrak, Emakunderen “Bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik” txostenean argitaratu direnak. Datuak ETHOS tipologiaren arabera dira (ikus 2. taula) eta 4 kategoria operatiboetako bakoitzaren arabera aletzen dira (etxerik edo aterperik gabe, etxebizitzarik gabe, etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia).

1. kategoria kalean lo egiten duten pertsonen dagokie. Gizonezkoen ehuneko ia % 80 da eta emakumeena % 20 baino apur bat gehiago. ETHOS tipologiaren 2. kategoriari bagagozkie —ohiko bizilekurik ez daukatenez, gauez oso eskakizun urriko aterpetxeak edo bizitokiak darabiltzaten pertsonen kasua alegia—, are txikiagoa da emakumeen ehunekoia. EAEn ostatu hartzeko zentro eta zerbitzuetan gauez egindako azken zenbaketako datuen arabera (ikus 2. taula), 2014ko urriaren 29 eta 30eko gauean zehar 225 pertsonak hartu zuten ostatu zentro-mota hauetan. Haietatik guztietatik, 15 baino ez ziren emakumeak, eta gizonezkoak, berriz, bertan lo egiten zutenen % 93 ziren.

1. taula. Eskakizun urriko aterpetxe eta zentroetako lekuak, gaueko zenbaketa (2014)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Zentro-kopurua	1	5	3	9
Leku-kopurua	32	142	100	274
- Leku mistoak	0	132	100	232
- Emakumeentzako lekuak bakarrik	3	0	0	3
- Gizonentzako lekuak bakarrik	29	10	0	39
+ Leku publikoak edo itunduak	32	96	56	184
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	25	121	79	225
- Emakumeak	2	8	5	15
- Gizonak	23	113	74	210

Iturria: Emakunderen ikerketa (2016)

ETHOS tipologiaren 3. kategoriari dagokionez —gutxi gorabehera zentro guztiak sartzen dira tipologia horrek barne hartzen dituen egoeretako kategorietan—, hau ikus daiteke: 2014ko urriaren 29 eta 30 bitarteko gauean guztira 958 pertsonak hartu zuten ostatu kategoria operatibo honen esparruan sailkatuta dauden bizitoki-modalitateetan. Zenbaketaren arabera, pertsona horietatik ia % 23 (219) emakumeak ziren eta gainerako % 77 (739), gizonezkoak.

ETHOS tipologiako 4. kategoriak zehatz jasotzen du zer egoera espezifiko duten genero-indarkeria jasan dutelako aldi baterako bizitokietan dauden emakumeek. Hurrengo taulan ikus daiteke egoera horietara bideratutako leku kopuru zehatza. Zenbatespen hau Euskadin egindako gaueko azken zenbaketatik eskuratu daitekeen informazioan oinarrituta badago ere, zentro-mota hauetako leku kopuru txikiak agerian uzten du badaudela muga batzuk hurbilketa egoki bat egin ahal izateko egoera horien nondik-norakora. Bizkaian, adibidez, hainbat arrazoiengatik, ez dira tratatu txarrak jasan dituzten emakumeentzako dauden foru-baliabide batzuk sartu (57 leku guztira), ezta Bilbotik eta Barakaldotik kanpo dauden udal-baliabideak ere (9 pisu, 42 leku guztira). Etxerik gabeko pertsonen gaueko zenbaketak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako dauden tokien % 46 soilik jasotzen du, gutxi gorabehera; horregatik, 2. taulako zifra orokorra zuzendu egin da, erabilgarri dauden tokien eta okupazio indizeen arabera.

2. taula. EAEn bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen kopuruaren zenbatespena, sexuka banatuta, ETHOS Tipologiaren arabera

	KATEGORIA ERAGILEA	BIZITEGI EGOERA	KOPURUA			DATA ERREF.	ITURRIAK
			GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA		
A	ETXERIK GABE						
1	Eremu publikoan bizi direnak (atari zabalean)	1.1	Kanpoko eremu publikoa	26	245	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa.
2	Gaueko babeslekuan lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak	2.1	Eskakizun gutxiago gaueko ostiatua edo aterpetxea	15	225	(2014)	
B	ETXEBIZITZARIK GABE						
3	Etxerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan / aldi baterako bizibizilean bizi direnak	3.1	Aterpetxeak eta bizibizileak	33	165	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa.
		3.2	Aldi baterako etaragoizako bizibizileak	24	69	(2014)	
		3.3	Babespeko bizibizileak	162	724	(2014)	
4	Erakundeentzako aterpetxeetan daudenak	4.1	Erakundeentzako aterpetxeak (bakarrik edo seme-alabekin)	107	142	(2014)	Ad hoc zenbatespena aurrez aipatutako azterketa oinarritut hartuz.
5	Asilo-eskatzaila eta etorkinrentzako bizibizilean daudenak	5.1	Aldi baterako bizibizileak / Harrera-zentroa	26	68	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa.
		5.2	Sasoiko langileentzako bizibizileak	--	--	--	
		6.1	Zigot-instituzioak (espetxeak)	10	81	(2014)	INE. Espetxean dagoen biztanleriari buruzko estatistika; eta beste balioespene batzuk
6	Epe jakin batean egoitzainstituzioetatik edo barneratzeinstituzioetatik iriango direnak	6.2	Osasun-instituzioak (ospitaleak, etab.)	Daturik gabe	Daturik gabe	--	
		6.3	Aldingabeentzako zentroak	14	24	(2014)	Ad hoc zenbatespena, hainbat iturritan oinarrituta
		7.1	Adineko txerrik gabekoentzako egoitza	0	0	(2014)	
7	Etxerik gabeko pertsonak direnez babes eutsiko bizibizileak jasotzen dutenak	7.2	Aurrez etxerik ez izateko epe luzearako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitza	54	197	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa.
C	ETXEBIZITZA EZ-SEGURUA						
8	Edukitza ez-seguruko araubidean bizi direnak	8.1	Senide edo lagunen harrerapean bizi izatea	Daturik gabe	Daturik gabe	--	
		8.2	Legazko edukitzarik gabe (adb. , azpiakotatuak)	95	879	(2014)	Gizarte Zerbitzuen Eskaerari buruzko Estatistika. ENS
		8.3	Legaz kanpoko okupazioa	61	74	(2012)	EUSTAT. Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta
9	Ekegabete-mehatxupean bizi direnak	9.1	Alokairuko araubidean	19.215	45.831	(2013)	2013ko FOESSA inkesta
		8.2	Jabetzako etxebizitza	2.704	8.955	(2013)	2013ko FOESSA inkesta
10	Bikotekideen edo familiarren indarkeria-mehatxupean bizi direnak	10.1	Polizian aurkeztutako salaketak (babesaginduekin edo kautelazko neurriekin)	154	886	(2014)	INE. Ekeko Indarkeria eta Genero-indarkeriari buruzko Inkesta
D	ETXEBIZITZA DESEGOKIA						
11	Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak	11.1	Karabanak eta antzekoak	2	12	(2014)	EAEn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko II. azterketa.
		11.2	Ezohiko erailkinak eta pertsonak bizi izateko egokiak ez direnak	109	181	(2014)	Gipuzkoa bakarrik: 2014. urtean Gipuzkoako Lurralde Historikokoan kokatutako biztanleria jito-errumaniarri buruzko azterketa 11.3 Adi baterako egiturak diagnostikoa
		11.3	Aldi baterako egiturak	44.771	87.466	(2011)	Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko errolda
12	Bizibizile desegokia	12.2	Bertan bizi izateko egokia ez den eraikina	42.695	87.056	(2011)	Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko errolda
13	Larregizko pilaketa	13.1	Pilaketa zehazten duten ohiko estandarren gain-gainetik	44.697	87.056	(2011)	Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko errolda
	GUZTIRA						

3. taula. Emakumeentzako lekuak aterpetxeetan, gaueko zenbaketa 2014

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Zentro-kopurua	11	12	5	28
Leku-kopurua	61	69	38	168
+ Leku publikoak edo itunduak	61	60	38	159
Ostatu hartuta dauden pertsonen kopurua	27	23	15	65
- Emakume helduak	14	17	9	40
- Adingabeak	13	6	6	25
+ Mutikoak	9	3	4	16
+ Neskatoak	4	3	2	9

Iturria: Emakunderen ikerketa (2016)

Beste azterketa batzuek iradoki duten bezala, Emakundek egindako ikerketan (2016) berretsit egiten da gizonezko gehiago dagoela etxegabetasun-egoeretan, hau da, etxerik gabe eta etxebizitzarik gabekoen kategorian. Egoera horien guztien laurdena baino gutxiago emakumeei dagozkie (% 24,1), eta gizonezkoak gehiengoak dira, nabarmen (% 74,5). Desberdintasun nabariena etxerik gabeko pertsonen kategorian ikusten da, emakumeak % 8,7 soilik baitira. Deigarria da emakumeak kalean lo egiten duten pertsonen % 10,6 direla, baina gaueko aterpetean lo egiten dutenen % 6,7 soilik. Datu horiek bat datoz kalean dauden emakumeek ostatu hartzeko zerbitzuak gutxiago erabiltzen dituztela dioten emaitzekin.

Emakumeen proportzioa handitu egiten da etxebizitzarik gabeko kategoria aztertzen badugu. Jasotako egoera guztien artean, emakumeei % 29 dagozkie eta gizonezkoek % 71. Jakina, emakumeak dira gehiengoak genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako bizitokietan. Dena den, % 30 baino gutxiago dira jaso diren gainerako egoera ia guztietan, asilo-eskatzailerak eta immigranteentzako baliabideetan izan ezik (% 38,2 dira).

Funtsezko genero-arraila dago gizon eta emakumeengan etxegabetasun-egoerek (etxerik gabe eta etxebizitzarik gabe) eta bizitegi-bazterketak (etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia) duten eragin desberdinari dagokionez. Etxegabetasun-egoeretan, laurdena baino ez dira emakumeak; aldiz, bizitegi-bazterketaren egoeretan, askoz ere orekatuago dago erlazioa, haien pisu erlatiboa % 50 baita, gutxi gora behera.

Bestalde, Madrilen edo Zaragozan egindako gaueko azken zenbaketen emaitzek ere, Bilbo edo Donostiako emaitzekin bat etorriz, hau erakusten dute: azken joera dela, nolabait, kalean zenbatutako emakumeen kopuruak gora egitea. Madrilen zehazki, sexuaren arabera bereizitako informazioa duten azken emaitzen arabera, kalean bizi diren emakumeen kopurua handitzen ari da pixkanaka: 2008an % 10,9 ziren; 2012an, % 13; 2014an, aldiz, eremu publikoetan topatutako pertsonen % 14,2 ziren.

EZAUGARRIAK

2014ko gaueko zenbaketan, Emakundek ikerketan aurkezten dituen datuen oinarritzat hartzen den horretan, galdera-sorta txiki bat aurkeztu zitzaizen kalean lotan edo aterpetean aurkitu zituzten pertsonen eta, horri esker, pertsona horien zenbait ezaugarri aztertu daitezke. Eta gure kasuan, etxerik gabeko gizon eta emakumeen arteko alderaketak egin ditzakegu. Hala, oro har bizitegi-bazterketa larrian dauden gizon eta emakumeen batez besteko adina antzekoa den arren (37,4 eta 36,4 urte, hurrenez hurren), desberdintasun batzuk ikus daitezke bi taldeak adin-kohorteen arabera banatuz gero. Esaterako, gizonezkoen artean handiagoa da biztanleria gaztearen pisu erlatiboa, eta emakumeen artean, berriz, pixka bat handiagoa da tarteko adin-kohortearena (35 eta 44 urte bitartean). Desberdintasun horiek txiki samarrak dira orokorrean, baina agerikoagoak bihurtzen dira kalean aurkitutako pertsonengan eta aterpetxeen erabiltzaileengan.

Atzerritik datozen pertsonak askoz gutxiago dira etxerik gabeko emakumeen artean, baina emakume atzerritarrek gutxiagotan izan ohi dute bizileku-baimena: atzerriko nazionalitatea duten gizonen % 53,8k bizileku-baimenen bat dute; emakumeen artean, proportzio hori % 46,9ra jaisten da. Desberdintasun horiek bereziki nabarmenak dira kalean aurkitutako biztanleriaren eta gaueko aterpetxeak erabiltzen dituzten pertsonen artean.

Bizitegi-bazterketa larrian dauden gehienek ezkongabeak direla adierazi dute, baina alde handia dago emakume eta gizonen artean. Egoera hori da nagusi gizon zein emakumeen artean: gizezkoen hiru laurden (% 75,4); ostera, emakumeen % 55,7 soilik. Ezkongutako ehuneko baxua nabarmentzen da (emakumeen % 11,4 eta gizonen % 8,3), baita emakumeen artean banandu edo alargundu direnak duten pisu erlatibo handiagoa ere (% 31, eta gizonen artean % 15). Kalean edo aterpeetan topatutako emakumeen artean, are ohikoagoak dira egoera horiek; izan ere, emakumeen % 36,8k adierazten du bananduta daudela edo alargunak direla, eta gizonen artean, aldiz, % 17,6k soilik.

Eskuratutako informazioak agerian uzten du bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeen artean noraino den ohikoagoa bikotekidea izatea. Galderei erantzun dieten emakume guztien artean, % 30,3k esaten dute bikotekidea dutela, eta gizonen artean, aldiz, % 23,5ek. Emakumeen kasuan, proportzio hori % 42,1eraino heltzen da kalean edo aterpeetan topatutako pertsonen kasuak kontuan hartzen direnean. Aldiz, gizonen % 24,1ek soilik esaten du bikotekidea duela.

Bakartze sozialeko egoerei dagokionez, datuek erakusten dutenez, gizonek gehiago jasaten dituzte emakumeek baino. Ildo horretatik, jasotako informazioak adierazten du gizezkoen % 28,2k pasatzen dituztela eguneko ordu gehienak bakarrik, eta emakumeen kasuan, aldiz, % 19,6k.

Oro har, emakumeek etxegabetasuneko ibilbide laburragoak dituzte gizonek baino. Gizonen eta emakumeen egoeren arteko desberdintasun hori oso ondo islatzen du datu honek: urtebetetik beherako etxegabetasun-egoerak ia kasuen erdiak dira emakumeen artean; gizonen artean, berriz, % 30 baino ez. Aitzitik, hiru urtetik gorako etxegabetasun-esperientziak % 40 dira gizonen artean; emakumeen artean, % 25.

Etxegabetasun-egoeraren aurreko bizitegi-egoerari dagokionez, azpimarratzekoa da genero-desberdintasun garrantzitsuenetako bat: etxerik gabe bizi aurretik beren etxean bizi izana adierazten duten pertsonen artean, handiagoa dela emakumeen proportzioa. Etxerik gabe gelditu aurretik non bizi ziren galdetzean, emakumeen herenak baino gehiagok (% 36,9) beren etxean bizi zirela esan zuten; gizonen artean, galderei erantzun zieten laurdena baino gehixeago (% 26,2).

Ba al dago alde edo diferentziarik emakume eta gizonen artean etxegabetasun-egoera eragin zuten arrazoi nagusiak aipatzerakoan? Jasotako erantzunak ikusita, baietz pentsa genezake. Gizonen emakumeek baino gehiago aipatzen dituzte egiturazko faktoreak (batez ere, laneko arazoei, arazo ekonomikoei edo paper-faltari loturikoak); emakumeek, aldiz, askoz gehiago aipatzen dituzte harreman-faktoreak (% 34,2 eta gizonen artean % 21,8), familia arteko arazoei eta/edo bikote-hausturari loturikoak, indarkeria matxistaren egoera espezifikoak ere barne direla.

Kalean lo egin behar izatea askoz gutxiago ematen da emakumeen kasuan. Galderei erantzun zieten pertsonen artean, gizezkoen ia % 75ek aipatzen ditu horrelako egoerak (une horretakoak edo iraganekoak); emakumeen artean, aldiz, % 47,2k. Zalantzarik gabe, desberdintasun hori azaltzen duten arrazoen artean aipatu behar da kalean gaua igarotzeak arrisku handiagoa dakarkiela emakumei. Kalean jasandako liskar, larderia edo indarkeriazko esperientzia jakinei lotutako erantzunen arabera, emakumeen biktimizazioa gizonena baino handiagoa da aipatutako egoera guztietan. Biktimizazio motaren baten prebalentziak gaua eremu publikoetan igarotzen duten edo behin edo behin igaro duten hamar pertsonetatik seiri eragiten die. Intzidentzia hori, dena den, askoz altuagoa da emakumeen kasuan, % 67,2k aipatzen baitu biktimizazio motaren bat; gizonen artean, % 59,5ek.

Jasotako biktimizazio mota desberdinak alderatuz gero, argi gelditzen da emakumeen kasuak gehiago direla mota guztietan. Desberdintasunak bereziki nabarmenak dira eraso fisikoei (emakumeen % 31,3k aipatzen dituzte; gizonen % 20,4k) eta, batez ere, sexu-erasoei dagokienez (emakumeen % 22,7; gizonen % 1,8).

Gizonezkoetan, erdipurdiko osasuna, txarra edo oso txarra dutenen portzentajea % 33 da; emakumezkoetan, berriz, % 44. Genero-desberdintasun handienak, hain zuzen, kalean edo aterpeetan lo egiten dutenengan ikusten dira (emakumeen % 54,4k dio erdipurdiko osasuna, txarra edo oso txarra duela; gizonezkoei bagagozkie, % 33,7k). Dena den, alde horren arrazoietakoa bat da egoera horretan dauden gizonen artean gazte asko daudela.

Bizitegi-bazterketa larrian dauden emakumeek bere osasunari buruzko pertzepzio negatiboagoa dute gizonena baino, eta, gainera, gehiago aipatzen dituzte osasun-arazo larri edo kronikoak. Arazo horiek emakumeen % 47,2ri eragiten diete, eta gizonen % 39ri. Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen gaixotasun-mota kontuan hartuta, ikus daiteke patologia-mota ohikoenek prebalentzia handiagoa dutela emakumeen artean. Talde bien arteko alde handienak buru-nahasmendu eta -gaixotasunen kategorian daude. Lortutako erantzunen arabera, patologia mota horrek gizon guztien % 13,7ri eragingo lioke, eta emakumeen ia % 20,7ri.

Erabiltzen dituzten baliabideei dagokienez, orokorrean esan daiteke emakumeek gutxiago erabiltzen dituztela baliabideak gizonek baino. Diferentzia horiek bereziki handiak dira jantoki sozialetan (inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan, noizbait erabili ditu gizonen % 31,3k eta emakumeen % 12,2k), eguneko zentroetan (gizonen % 37,6 eta emakumeen % 25,1) eta higiene-edo garbitasun-zerbitzuetan, hots, dutxa publikoetan eta garbitegietan (gizonen % 20,5, eta emakumeen % 7,4). Salbuespen nagusi dira bi zerbitzu, emakumeek askoz gehiago erabiltzen baitituzte gizonek baino: Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (emakumeen % 44,6k eta gizonen % 36,8k erabiltzen dituzte) eta osasun-zentroak (anbulategiak, ospitaleak, e.a.).

Bigarren zatia

BIZITEGI-BAZTERKETA EGOERA LARRIAN DAUDEN EMAKUMEEN ERREALITATEARI BURUZKO IKERKETA KUALITATIBOA

A) LANTALDEA BIZITEGIKO HEZITZAILE-TALDEAREKIN

Informazio-bilera eta parte-hartzeko tailerra etxegabetasun egoeran dauden emakumeekin lan egiten duten Bizitegiko gizarte-hezitzaileekin.

1. BILERAREN ETA PARTE HARTZEKO TAILERRAREN GARAPENA:

HELBURUAK:

1. Ikerketa honen berri ematea etxerik gabeko emakumeekin lan egiten duten Bizitegiko profesional-taldeari.
2. Bizitegiko hezitzaile-taldearen lanaren xedeko emakumeen problematikak, interesak eta beharrak identifikatzea.
3. Emakume horiekin lan egitean taldeak topatzen dituen arazoak identifikatzea.

METODOLOGIA:

Lanerako metodologia parte-hartzailea baliatu zen:

- Hezitzaile bakoitzak aurkezpen txiki bat egin zuen bere lanaren eta emakumeekin egiten ari diren lanaren gainean.
- Ikerketaren helburuak eta egin beharreko jarduerak aurkeztu genituen.
- Parte hartzeko tailer bat egin genuen hezitzaile-taldearekin. Hiru lantalde osatu genituen (urriaren 19an bi eta urriaren 23an beste bat) eta haien lanaren xedeko emakumeek dituzten problematikak, interesak eta beharrak aztertu genituen, galdera batzuen bidez. Azkenik, taldeka landutakoa partekatu genuen.

Informazio kualitatiboa jaso, eta hezitzaileek topatzen dituzten arazo desberdinak aztertzeko gero, analisirako lau faktorekin zedarritu genituen bilerak.

Galderaz osatutako gidoi batekin lan egin genuen, taldekako lan-saioak bideratzeko. Saio guztiak grabatu ziren, ondoren sakonean aztertu ahal izateko.

1. koadroa. Informazio kualitatiboa biltzeko erabilitako tresnaren laburpena.

FAKTOREAK	GALDERA POSIBLEAK
A. Bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden emakumeen ezaugarriak eta profilak	<ul style="list-style-type: none"> - Zein dira zuen lanaren xedeko emakumeen ezaugarriak edo profilak? - Azken urteotan sumatu al duzue aldaketarik emakume erabiltzaileen profiletan? Esaterako, gehiago al dira emakume gazteak, haurrak dituztenak, etorkinen edo babes-sare sozialik ez dutenak? - Zenbait ikerketen arabera, etxegabetasun egoeran dauden emakumeen presentzia oso txikia da, baina egoera horretan daudenek oso bizi-baldintza prekarioak dituzte eta haien zaurgarritasuna eta narriadura larriagoak dira. Zure esperientziaren arabera, ados al zaude baieztapen horrekin? Zergatik uste duzue horrela dela?
B.. Bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeen zenbatespena	<ul style="list-style-type: none"> - Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen erabilerari buruzko datu berrienen arabera, azken urteotan handitu egin da zerbitzu horiek erabiltzen dituzten emakumeen kopurua. - Zuen esperientzia pertsonaletik abiatuta, zer pertzepzio duzue horri buruz? Zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumeak gero eta gehiago direla ikusi duzue? Argudiatu. - Bestalde, badirudi «ezkutuko etxegabetasuna» existitzen dela; alegia, emakumeek estrategia desberdinak garatzen dituztela muturreko egoerak saihesteko. - Zuen eguneroko lanean, inoiz ikusi al duzue horrelako egoerarik? Argudiatu
C. Egoera horri eragiten dioten faktoreak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuen esperientziaren arabera, zein dira etxegabetasun egoeran dauden gizon eta emakumeen arteko alde edo diferentzia garrantzitsuenak? - Zuen ustez, diferenteak dira gizon eta emakumeen etxegabetasun egoerei eragiten dieten faktoreak? - Zuen ustez, zein dira emakumeen etxegabetasun egoerari eragiten duten faktoreak?
D. Etxerik gabeko emakumei laguntzeko egungo zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuen ustez, etxerik gabeko pertsonen laguntzeko zerbitzuak genero-ikuspegitik diseinatuta daude? - Aintzat hartzen al dituzte emakumeen behar espezifikoak? - Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuak eta zentroak zenbateraino egokitzen zaizkie emakume erabiltzaileen bizipen eta ibilbideei? - Nola baloratzen dituzue «baliabide mistoak»? - Zuen esperientziaren arabera, zer proposatuko zenukete etxegabetasun egoeran dauden emakumeen beharrei hobeto erantzuteko?

2. LORTUTAKO EMAITZAK:

EMAKUMEEN PROFILA ETA EZAUGARRIAK

1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA
<ul style="list-style-type: none"> - Genero-indarkeriaren biktimen kopuru handia. - Narriadura maila oso handia. - Ordaindutako lan gutxi edo bat ere ez. - Ardurapean adingabeak dituzten emakumeak. - Erruduntasunaren eta lotsaren zama duten emakumeak. - Gaixotasun mentala. - Adikzioak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume oso gazteak. - Ardurapean adingabeak dituzten guraso bakarreko familiak. - Genero-indarkeriaren biktimak. - Narriadura maila oso handia. - Droga-mendekotasunak. - Zaugarritasun egoera kronifikatua dauden bertako emakumeak. - Etxerik gabek (bertako egoera kronifikatua eta etorkinak). - Gaixotasun mentala. - Immigranteak. - Sare sozialik ez: muturreko etxegabetasun egoerara heltzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume immigrante iritsi berriak. - Emakume oso gazteak. - Narriadura maila oso handia. - Emakume immigrante, eskubideetarako irispiderik gabek (osasuna). - Gaixotasun mentala. - Arazo ekonomikoak dituzten bertako emakumeak. - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. - Sare sozialik ez.

HAIEN EGOERARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK

1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA
<ul style="list-style-type: none"> - Autoestimu txikia. - Sare sozialik ez. - Prestakuntza maila baxua. - Baliabiderik ez. 	<ul style="list-style-type: none"> - Familia desegituratuak. - Baliabide falta. - Aukera falta. - Autoestimu txikia. - Babes sozialik ez. - Ikasitako ereduak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren eskubideei buruzko ezagutza falta (osasuna, enplegua, prestakuntza, e.a.). - Lanik ez izatea. - Diskriminazioa. - Guraso bakarreko familiak. - Baliabide ekonomikoetara irispiderik ez izatea. - Prestakuntza maila baxua. - Estereotipoak eta rolak (emakumeak, zaintzaileak; gizonek, lan fisikoa).

BIZITEGI-BAZTERKETAREN ONDORIOZ JASATEN DITUZTENAK

1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA
<ul style="list-style-type: none"> - Osasun txarra. - Depresioa, bakardadea, errua. - Estigmatizazioa. - Kronifikazioa. - Autoestimu txikia. - Narriadura pertsonala. 	<ul style="list-style-type: none"> - Osasunaren narriadura. - Gaixotasun mentalak. - Egoeraren kronifikazioa. - Prostituzioa. - Narriadura pertsonala. - Erruduntasun sentimendua, egoera horretan egoteagatik. - Mendekotasuna. - Zaurgarritasun handiagoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kanean bizi dira. - Gaixotasun mentala (bakardadea, isolamendua, depresioa...). - Estigmatizazioa. - Seme-alabak dituzten emakumeak: haur-pobrezia egoerak (bazterketa egoeraren kronifikazioa). - Eritasun infekzio-kutsakorrek areagotzea. - Haustura eta mina eragiten dituzten egoerak (seme-alabak beste herrialde batean dituzten immigranteak).

BIZITEGI-BAZTERKETA EGOERATIK IRTETEKO IZATEN DITUZTEN ZAILTASUNAK

1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA
<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeentzako baliabide espezifikorik ez izatea. - Narriadura handia. - Zaurgarritasun handia. - Gizarte politikek ez dute laguntzen, ez daude genero-ikuspegitik diseinatuta. 	<ul style="list-style-type: none"> - Babeserako sare sozialik eta familia-sarerik ez izatea (haurren zaintza). - Emakumeentzako soilik diren eremu gutxi. - Inklusio-politikak ez dira sektore zaurgarri guztietara heltzen. - Bazterketa maila: gero eta gehiago kronifikatu, orduan eta bazterketa handiagoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aukerarik ez izatea etorkizunera begira. - Baliabideak eta zerbitzuak ez zaizkie denei iristen - Enplegura iristeko politiken falta (ez bakarrik laguntzetara bideratuak). - Motibazio falta. - Oinarrizko eskubideen murrizketak.

3. LANDA-LANEAN LORTUTAKO EMAITZEN ANALISIA

Atal honetan, Bizitegi hezitzaile-taldearekin egindako parte hartzeko tailerretan eta lantaldeetan lortutako emaitzak aztertuko ditugu. Haien lekukotzak eta iritzia oso garrantzitsuak dira, haiek baitira bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsonekin egunero lan egiten dutenak.

BIZITEGI-BAZTERKETA EGOERA LARRIAN DAUDEN EMAKUMEEN ZENBATESPENA ETA EZAUGARRIAK

Gure asmoa da identifikatzea zer neurritan desberdintzen diren bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden emakumeen eta gizonen ezaugarriak, bizipenak eta baldintzak.

Oro har, emakumeek etxegabetasuneko ibilbide laburragoak dituzte gizonek baino. Hala erakusten dute 2012 eta 2014rako gaueko zenbaketen emaitzek, baita EAEko Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkestatik ondorioztatzen den azken informazioak ere. Gizonen eta emakumeen egoeren diferentzia hori erakustera dator datu hau: urtebetetik beherako etxegabetasun-egoerak ia kasuen erdiak dira emakumeen artean; gizonen artean, berriz, % 30 baino ez dira. Aitzitik, hiru urtetik gorako etxegabetasun-esperientziak % 40 dira gizonen artean; emakumeen artean, % 25¹.

Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen erabilerrari buruzko ikerketa berrienen arabera, handiagoa da, azken urteotan, emakumeen presentzia. Emakume erabiltzaileen profilak ere aldatzen ari dira azken urteotan. Gero eta gehiago dira emakume gazteak, seme-alabak dituztenak, immigranteak, babes-sare sozialik ez dutenak, e.a.

Era berean, zenbait ikerketen arabera, etxegabetasun egoeran dauden emakumeak oso gutxi dira, baina egoera horretan daudenek oso bizi-baldintza prekarioak dituzte eta haien zaurgarritasuna eta narriadura larriagoak dira.

Hala erakusten dute Bizitegi hezitzaileen lekukotza eta iritziek:

«Elexabarrira iristen diren emakumeen kopuruak nabarmen egin du gora. Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak iristen dira, utzarazpenak direla eta.»

«Emakume asko tratu txarrak eta abusuak jasan ondoren iristen dira. Profil hori duten gero eta emakume gehiago iristen dira.»

«Emakumeak gizonak baino okerrago heltzen dira. Honaino iritsi aurretik, hamaika alternatiba bilatu dituzte. Ate guztiak jo dituzte. Eta kalean bizitzera iristen dira ez dutelako beste inora jotzerik. Askok mendekotasun-harremanak izan dituzte eta, azkenean, haien osasun mentala narriatu egin da eta iristen direnean oso zaurgarriak dira.»

«Emakumeentzako 6 leku daude, eta, orain, bi emakume ditugu eremu komun batean gizonekin lo egiten. Hori ez zaigu sekula gertatu, eta orain gertatzen da.»

«Emakume asko daude immigrazio kontuengatik, utzarazpenengatik, baita familiarik edo sare sozialik ez dutelako ere.»

«Gero eta emakume gehiago dago, kopuruak gora egiten du, eta gero eta gazteagoak dira. Emakume oso gazte asko iristen dira, 20-25 urte artekoak. Orain ikusten ditudan emakumeak duela urte batzuk ikusten zirenak baino askoz ere gazteagoak dira.»

Bestalde, badirudi «ezkutuko etxegabetasuna» edo «etxegabetasun ikusezina» existitzen dela; alegia, emakumeek estrategia desberdinak garatzen dituztela muturreko egoerak saihesteko. Esan genezake bi kontzeptuek bi fenomenori egiten dietela erreferentzia: zenbait egoeren ikusezintasuna, eta egoera horiek estali eta ezkutatu egiten direla.

SIIS zentroak Emakunderentzat egin zuen «EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik» txostenaren arabera (2016:76), «ezkutuko etxegabetasuna aipatzen denean

¹ SIIS zentroaren «EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik» txostenaren lortutako datuak.

emakumeen artean arazo honek hartzen duen forma espezifiko gisa, esan ohi da, emakumeek dituzten genero-egozpenengatik, gizonak ez bezalako bizitoki-moduetara sar daitezkeela, eta kaletik edo etxerik gabeko pertsonentzako ostatu hartzeko zerbitzuen erabileratik "urrunduko" lituzkeen zenbait estrategia erabiliko lituzketela. Zentzu honetan, aipatzen da emakumeek joera handiagoa dutela, gizonak baino, aldi baterako senide edo lagunen etxean ostatu hartzeko, edo familiarterako tratu txarrak edo abusuak luzaroago jasateko prest egongo liratekeela. Hori, nolabait, etxegabetasunaren arriskuari aurre egiteko babes-faktore moduan uler daiteke, baina mendekotasun- eta prekarietate-egoerak ekar ditzake".

Lehenego galderetako bat da zergatik dauden hain emakume gutxi etxerik gabekoen artean. Hemen bilatu beharko litzateke erantzuna: badaude kontrapisua egiten duten faktoreak, emakumeak gutxi-asko urruntzen dituztenak arrisku-egoera jakinetatik eta bizitegi-bazterketako prozesu larrienetatik. Ikuspuntu horretatik, ez dira, zehazki, babes-faktoreak, baizik eta, zehatzago, segur aski jada bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakume jakin batzuk bizitegi-bazterketa larrira igarotzea eragozten duten (edo aldi baterako ekiditen duten) elementuak.

Hori guztia hezitzaile-taldearen lekukotzetan islatzen da:

«Zailagoa da emakumeak kalean bizitzera iristea, biktima izaeragatik edo gizarteak hautesmaten dituen moduagatik beti dagoelako erantzun azkarrago bat, baina ez du zertan izan «segurua». Litekeena da gizon baten babesza izatea. Nik kalean beti entzun izan dut lelo hori: nahiago dut gizon batekin egon haren etxean, noizbehinka jo edo sexu harremanak izatera behartuko banau ere, ezen ez 50ekin. Behintzat ez nago kalean, arriskuan».

«Emakume batek askoz errazago du kalean lo egin behar ez izatea».

«Emakumeak sare sozialik gabe gelditzen badira askoz ere zaugarriagoak dira eta muturreko etxegabetasun egoeretara iristen dira. Sare sozialik gabeko emakumeak gizonak baino askoz okerrago daude. Sare soziala lagungarri da, azkenean emakumeak kale gorrian gera ez daitezen».

«Gizarte patriarkalak galarazi egiten du emakumeak kale gorrira iristea, gizonen baten etxean lo egin dezaketelako».

«Emakume askok prostituziora jotzen du kale gorrian ez amaitzeko».

HAIEN EGOERARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK

Ba al dago emakume eta gizonen arteko diferentziarik kalean lo egitera bultzatu zituzten arrazoi nagusiei dagokienez?

Emakumei dagokienez, bereziki deigarria da etxegabetasun egoerara iritsi izanaren arrazoi nagusietako bat izatea harreman-faktoreak, familiarterako arazoekin edo bikotekidearekin izandako hausturak ekarritako arazoekin lotutakoak (horien barnean daude indarkeria matxistaren egoera espezifikoak ere). Gizonen artean, aldiz, egiturazko faktoreak dira nagusi, funtsean laneko arazoekin, arazo ekonomikoekin edo paperak ez izatearekin lotuta daudenak.

Bizitegiko hezitzaile-taldeak honela kontatzen du:

«Indarkeria matxista, babes-sarerik ez izatea, bakardadea... faktore horien ondorioz amaitzen dute emakume askok kale gorrian».

«Emakumeen kasuan, elementu erantsi gehiago dago azkenean kale gorrian amaitu dezaten. Ez da kausa bakar batengatik. Askotariko arrazoiak nahasten dira, hala nola adikzioak, bakardadea, indarkeria, sare sozialik eza, e.a.»

«Gizonezkoa beti dago botere egoeran; emakumezkoa, ez».

«Emakumeak askoz beheragotik abiatzen gara. Gizonezkoak lehenesten ditu gizarteak, eta pribilegio horiek hastandu nahi badituzu ere, gizarteak ez dizkizu kentzen».

«Emakumeek sexu-erasoak jasateko aukera gehiago eta arrisku handiagoa dute kale gorrian. Gizon batek emakume bati min egin nahi dionean, sexu-erasoan pentsatzen du».

«Gizarte patriarkalak galarazi egiten du emakumeak kale gorrira iristea. Gizonen baten etxean egin dezakete lo».

IKUSEZINTASUNA ETA ETXERIK GABEKO EMAKUMEEI ARRETA EGITEKO BALIABIDE FALTA.

Ez dago emakume asko kale gorrian: horrek esplikatzen du, neurri handi batean, emakumeen bizitegi-bazterketa gizarte-arazotzat ez ikustea. Gaua kale gorrian igarotzen duten emakumeen ehunekoak apala denez, gizarte-kontzientzia eskasa eta baliabideak mugatu samarrak, 'kolektibo' horri ez zaio lehentasunik ematen gizarte-politiketan. Horren ondorioz, oso gutxi garatu dira baliabide desberdinak (ia ezer ez), eta asko atzeratu da etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen diseinu eta funtzionamenduan genero-joera zuzentzeko prozesua. Zerbitzu misto horiek ez dituzte emakumeen beharrak asetzen, genero-joera edo-eitean oinarritzen baitira.

Ez dago etxerik gabeko emakumei arreta egiteko baliabide espezifikorik. Zerbitzu mistoak, egia esan, gizonentzako baliabideak dira, emakumeak onartzen dituztenak.

Hezitzaile-taldeak honela ikusten du:

«Programa eta proiektu guztiak gizonezkoen ikuspegitik eginak daude. Emakumei ego-
kitutako baliabide maskulinoak dira».

Horren ondorioz, aterpetxeetan edo gaueko harrera-zentroetan ez dago emakumeentzako toki espezifiko nahikorik, eta zenbaitetan bat bera ere ez. Emakumeentzako eremu espezifikorik ere ez dago.

Hezitzaile-taldearen arabera:

«Badira emakume batzuk, egon behar ez luketen zerbitzuetan daudenak. Ez dago tokirik eta emakume asko daude. Baina zerbitzuak ez dira horren arabera areagotzen».

«Baliabideak egoerara egokitzen dira; esaterako, komunak gizonezkoentzako badira eta bat-batean beharra sortzen bada, komunetako bat emakumezkoentzako egokitzen da. Edo solairu oso bat egokitzen da. Ehuneko handiena gizonezkoena da. Orduan, nora bideratuko dut aurrekontua, arreta eta beste guztia? Ba gizonen beharrak asetzeraz»

«Baliabideak ez daude egokituta emakumeak ahaldundu daitezten».

«Elexabarrin emakumeentzako soilik den eremu bat sortu daiteke horma bat jarrita». Horma bat jarri beharko litzateke eremuak bereizteko. Eta hori proposatzen duzunean, esaten dizute: «Emakumeak sartzea kostatzen da eta gero, orain ez dugu eremu bereizi bat egingo. Ez zaituzte ulertzen horrelako zerbaitekin proposatzen duzunean».

«Aterpetxean ez dago emakumeentzako leku espezifikorik, ezta haienezako eremu bat ere. Guztira 83 leku daude guztientzat».

«...Badator udaleko teknikaria eta badiotsu: 50 pertsona daude itxarrote-zerrendan, gizonezkoak, eta emakumeentzako 4 ohe daude, bete barik. Bada, ohe horiek erabili egiten dira; ez dago emakumeentzat erreserbatutako oherik».

«Ez dira aintzat hartzen emakumeen behar espezifikoak. Ez dago ezta konpresarik ere.»

Aterpetxean oso giro maskulinoa dago, eta egoera hori normalizatu egiten dugu».

«...errealitateak zerbait egitera behartzen zaitu. Ez dago inolako aurreikuspenik; egoeraren arabera jarduten dugu...»

«Baliabide mistoak ondo daude, baina garrantzitsuagoa da eremu seguruak edukitzea. Emakumeak elkarrekin egoteko toki bat».

«Arrisku-eremuaren kontzeptua badago. Aterpetxea arrisku-eremu bat da emakumeentzat. Aterpetxeetan, badira erasotzeagatik kartzelan egon diren gizonak... eta tratatu txarrak jasan dituzten emakumeekin bizi dira. Ez da eremu seguru».

«Baliabideak oso maskulinoak dira. Indarkeria jasan duten emakumeak iristen dira eta aterpetxean sartzen dituzte, giro maskulino batean, tratatu txarrak eman dituzten gizonekin. Emakume horiek gaizki sentitzen dira. Arriskuan daudela eta segurtasunik ez dutela sentitzen dute etengabe».

«Ez dago eremu femeninoagorik, zainduago dagoenik, atseginago denik. Ez dago eremu bereizirik. Emakumeentzako gela bat dago. Intimitaterik ez. Grentzako gela, eta emakume batzuk kanpoan gelditzen dira. Nahasi egiten dira. Ez dira seguru sentitzen»

«Armairuen tokitik pasa behar da aldageletara joateko. Dena dago gizonen inguratuta. Dutzara joateko gizon guztien artean pasa behar duzu. Eremu batzuk egokitu beharko liriteke».

«Emakumeak aterpetxean... eremu horretan arriskatu egiten dira. Ez da aintzat hartzen emakumeen intimitatea. Ez dago intimitaterako eremu egokirik»

GENERO-INDARKERIA

Emakumeentzako baliabide espezifikoen aldeko argumentuetako bat hau da: segurtasuna ematen diela indarkeria matxistaren mehatxuaren aurrean. Genero-indarkeria etengabeko mehatxua izan daiteke kalean lo egin behar duten emakumeentzat, bai eta funtsezko arazo bat ere etxerik gabeko emakume gehienek ezkutuko etxegabetasuneko estrategia alternatiboak baliatu dituzten.

Ondorioz, emakume horietako askok beldurra edo mesfidantza adierazten dute baliabide misto batean ostatu hartzeko aukera dutenean; bereziki, genero-indarkeriaren biktimak baldin badira. Baliabide mistoen alternatiba gisa, emakumeei soilik bideratutako programak eta zentroak eskatu dira eta, kasu batzuetan, arreta eskaintzen dutenak ere, guztiak edo gehienak, emakumeak izatea proposatzen da.

«Tratu txarrak jasan dituen emakume batek agian ez du nahi gizon baten laguntza; behar bada, nahiago du emakume bat. Hasiera batean, garrantzitsuagoa da, agian, emakume baten laguntza. Baina ez dago halako protokolorik».

Mesfidantza sentimendu horiek, haien osasun eta ongizaterako kaltegarriak izateaz gain, beste oztopo bat gehiago dira ahalduntze-prozesuetan eta emakume horiek dituzten arazoak gainditzeko prozesuetan.

«Ez dago iristen diren emakumeei arreta egiteko propio diseinatu den baliabiderik».

«Nik gizon gehiago ditut emakumeak baino. Debateren bat egiten dugunean, gizonen ozenago hitz egiten dute, oihuka hasten dira, eta askotan gertatu zait taldean ditudan bost emakumeak zutitu, eta joan egiten direla. Oso urduri jartzen dira, beldurtu egiten dira eta ezin dute saihestu, bizi berri dituztelako indarkeria-egoerak. Ezin dute hitz egin».

«Sexu-abusuak jasan dituzten emakumeak dira, eta eremuak ez daudenez egokituta, etengabe sentitzen dute arriskuan daudela eta segurtasunik ez dutela».

«Bizitegin artatzen ditugun emakume gehienek indarkeria motaren bat jasan behar izan dute».

«Emakumeak aterpetxean... eremu horretan arriskatu egiten dira. Ez da aintzat hartzen emakumeen intimitatea. Ez dago intimitaterako eremu egokirik».

«Emakumeek presio sozial gehiago dute, irudi txarragoa ematen dutelako eta horrek zama emozionala eta erruduntasuna areagotzen duelako»

«Emakumeak errudunago sentitzen dira kale gorrian bukatu izanagatik eta generoaren eginkizunak bete ez izanagatik, hala nola ama izatea edo gurasoak zaintzea, hori eskatzen zaie eta».

«Askok erasoak jasan dituzte kalean, eta ia denek indarkeria pairatu dute».

LAN EMOZIONALA

Horren harira, aipatu beharra dago desberdinak direla emakumeen premia eta inplikazio emozionalak eta gizonenak; eta hori ez da aintzat hartzen.

Hezitzaile-taldeak ere ikusten du errealitate hori:

«Emakumeekiko lan emozionala falta da».

«Baliabideak ez daude egokituta emakumeak ahaldundu daitezten. Orain salaketa jartzeko eskatzen dizute, eta, egiten duzunean, zure burua saldu duzula sentitzen duzu, baliabideek ez baitute gaitasunik erantzun hori emateko. Nola erantzuten zaien emakume horiek duten beharrei... ez dut uste ondo egiten denik eta baliabiderik dagoenik».

«Ez da autoestimua lantzen... Bakardadea, estigmatizazioa, beldurra, lotsa... Oso zaila da hori guztia sendatzea».

«Ez da kontuan hartzen lotsaren eta erruaren kontua, ezta «emakume txarra» izatearen kontua ere. Landu ere ez da egiten hori. Alderdi emozionala ez da lantzen».

«Min handia sentitzen dute eta adikzioekin, gaixotasun mentalekin eta erruarekin estaltzen dute».

«Erru- eta lotsa-sentimenduekin etortzen dira. Ez baitute zaintzaile lana egiten, eta hori oso gaizki ikusia dagoenez, estigmatizatuak sentitzen dira».

«Estigmatizatuta daude baliabideetara heltzen direnean. Iritsi bezain laster, seinlatu egiten dituzte eta haiei buruz gaizki esaka hasten dira, eta emakumeek oso gaizki pasatzen dute».

Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako programak eta baliabideak ez daude egokituta bizitegi-bazterketa beste arazo batzuekin batera bizi duten emakumeekin lan egiteko.

Era berean, egungo zentro misto askok ez dituzte espezifikoki kontuan hartzen indarkeria matxista jasan duten emakumeek dituzten beharrian bereziak.

«Badira baliabide asko, emakume asko egokitzen ez zaizkionak. Ez bazara prostituta, ezin duzu Askabidera joan; ez baduzu ezer kontsumitzen, Gizakia Helburu zentrorra ere ez. Baliabide asko ez dira egokiak profil guztietarako; baztertzaileak dira»

EMAKUME TALDEAK

Emakumeentzako soilik diren eremuak edo programak eskatzeko beste arrazoi bat da biderkatu egiten direla haien artean babes-harremanak sortzeko aukerak. Bristol-eko (Erresuma Batua) etxerik gabeko emakumeei buruzko ikerketa batean, Henry et al. (2010: 33), garrantzi handia ematen zaie babes-harreman horiei, bizitza autonomo bat eraikitzen laguntzen dutelako. Badaude emakume talde batzuk, elkarri laguntzeko talde izateko helburuarekin elkartzen direnak eta askotariko gaiak (pertsonalak edo kolektiboak) lantzen dituztenak, taldearen osaeraren arabera.

Emakume taldeak, lan emozionalarekin batera, problematika horretan esku hartzea erabaki duten baliabideek martxan jarri duten ekimenetako bat dira, azkeneko kapituluaren ikusiko dugun bezala.

Hori ere eztabaidatu zen taldeka hezitzaileekin.

«Taldea espezifikoa egin behar ditugu, emakumeekin bakarrik. Mistoak egin ditut eta gaizki aterata da. Ez dago aukerarik emakumeekin soilik egiteko. Talde mistoak ez du funtzionatzen».

«Emakumeentzako eguneko zentroak sortu behar ditugu, edo haientzako eremuak, eduki espezifikoarekin (babes-taldeak, antzerkia... eta har dezatela parte nahi duten horretan).»

«Emakumeek har dezatela parte nahi duten horretan eta heziketa-laguntza eskaini dadila emakumeentzako soilik diren eremuetan. Eremu espezifikoa eta seguruak, emakumeak ahaldundu daitezten»

«Eremu propio bat izatea, gogoak ematen diena sortzeko. Emakumeek bizi duten errealitatea ezagutzeko eta kultura-eremuak eraikitzen saiatzea. Emakumeak elkartu eta segurtasun eta errespetu giro bat sortuz gero, gauza gehiago lortzen dira osasun-helburuak egiten baino... Jendea ahalduntzeaz hitz egiten hasten denean, orduan hasten dira gauzak lortzen».

«Hitza eman behar zaie; eremuak eman behar zaizkie, edo guneak sortu».

«Esaten ari naizena da eremu seguruak sortu behar direla, nire ustez ezinbestekoak baitira segurtasun giro bat sortu ahal izateko. "Zergatik ez didate uzten parte hartzen talde feministetan?" galdetzen zuten horietako bat nintzen, baina zenbait gauza ikusi ondoren konturatu nintzen esaten dutena egia hutsa dela. Giro hori ez baita sortzen ni isil-isilik banago ere. Eta horrela dira gauzak. Eremu horiek sortu egin behar dira, eta emakumeentzako soilik diren taldeak sortzea aukera bat izan daiteke».

FAMILIEN PRESENTZIA

Hezitzaileek izaten duten beste arazoetako bat aterpetxera adingabeekin iristen diren familiena da. Familia batzuk guraso bakarrekoak dira eta eskaintzen diren zerbitzuak oso eskasak edo hutsalak dira:

«Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak iritsi dira, utzarazpenak direla eta. Haurrek oso gaizki pasatzen dute. Haur askok antsietate-krisiak izaten dituzte eta egunero egiten dute negar, ez dutelako hor egon nahi. Haurrek dena ikusten dute eta beldur izaten dira. «Horko gizon horiek beldurra ematen didate» esaten dute. 7 urteko haurrek».

«Udalak eskaintzen dien baliabidea aterpetxean sartzeko da, ez daitezenez kale gorrian gelditu, eta hortik aurrera inor ez da arduratzen (seme-alabak dituzten familiez ari da)».

«Ez dago zerbitzu espezifikorik seme-alabak dituzten familientzat. Beno, Claret fundazioak egin duen aterpetxea dago. Baina ez dakigu ezer baliabide horri buruz».

«Pertsona bakoitza non sartu dezakegun sailkatu ohi dugu. Azken urtean, 7 haur egon dira aterpetxean, amekin. Familia osoak ere egon dira, Claret fundaziora bideratu dituztenak. Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuak ileak lazteko moduko datuak ditu.»

«Ardurapean adingabeak dituzten emakumeak aterpetxeetan. Deigarria da Elexabarri bezalako baliabideetan egotea, adingabeak izanik. Gainditu ezin diren marra gorri batzuk ezarri behar dira. Adingabeak dituzten familientzako aterpetxe batean egotea ez da baliabide egokia. Baliabide egokiren bat egon beharko litzateke. Ez dira betetzen seme-alabak dituzten pertsona horiei laguntzeko gutxieneko baldintzak.»

HEZITZAILE-TALDEEN PROPOSAMENAK ETA HOBEKUNTZA-EKINTZAK:

1. «Emakumeentzako baliabide espezifikoak.»
2. «Profesionalentzako prestakuntza. Emakumeekin egindako beste esperientzia batzuk ezagutzea.»
3. «Hain hotzak ez diren eremuetan egitea harrera. Atseginagoak izan daitezela.»
4. «Eremu babestuak diseinatzea, erabiltzaileengan segurtasun sentipena eragingo dutenak.»
5. «Eremu eskusiboak, gizonezkoekin nahasi gabe. Hezkuntzazko lagun egitea eta guzti.»
6. «Eremu fisikoak feminizatzea.»
7. «Kontsumo arazoak dituzten, gaixotasun mentalen bat duten eta tratu txarrak jasan dituzten etxerik gabeko emakumeentzako baliabideak. Gaur egun, zerbitzuetatik kanpo gelditzen dira.»
8. «Emakumezkoekin soilik lan egiteko taldeak. Inguru femeninoak sortzea»
9. «Bikoteentzako eremuak.»
10. «Egoera espezifikoetara heltzerakoan, profesionalen zeregina aintzat hartzea.»
11. «Dena hobeto antolatuta egoteko beharra. Koordinazioa.»
12. «Emakumeen irudi pertsonala zaintzea: ez dago lehorgailurik, oso konpresa gutxi eskaintzen dira, emakumeentzako aitzurrak (gizonezkoentzako baino ez dago), bularretakoak... Higienarako oinarrizko baliabideak falta dira.»
13. «Prestakuntza, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei lagun egiten eta haiekin esku hartzen jakiteko. Indarkeria kasuak lantzeko prestakuntza: nola lagun egin kasu horietan.»
14. «Emakumeek hautatu ahal izatea norekin hitz egin.»
15. «Emakumeentzako laguntza psikologikoa.»
16. «Nola jokatu kalean bizi diren emakume haurdunekin.»
17. «Gainditu ezin diren marra gorri batzuk ezartzea. Adingabeak dituzten familiak ezin dira aterpetxe batean egon; ez da baliabide egokia. Ez dira betetzen seme-alabak dituzten pertsona horiei laguntzeko gutxieneko baldintzak.»

18. «Emakumeentzako eguneko zentroak eduki espezifikoarekin: babes-taldeak, antzerkia... har dezatela parte nahi duten horretan eta sor daitezela emakumeak ahalduntzeko eremuak.»
19. «Bizitegiaren jarduteko protokolo bat egitea, zenbait egoeratan nola jardun jakiteko.»

B) LANTALDEA BILBOKO UDALEKO GIZARTE-LANGILEKIN ETA GIZARTE-LARRIALDIETARAKO UDAL ZERBITZUKO TEKNIKARIEKIN

Atal honetan, Gizarte-larrialdietarako Udal Zerbitzuko gizarte-langile eta teknikariek izan genuen lan-bileran ateratako ondorioak azalduko ditugu. Bilera horretan, profesionalen eguneroko jarduerak eta lana aztertu genituen, bai eta izaten dituzten esperientziak eta oztopoak ere.

Honako ondorio hauek atera genituen bilera horretatik:

GIZARTE-LARRIALDIETARAKO UDAL ZERBITZURA IRISTEN DIREN GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK:

- Emakumeak gizonak baino askoz okerrago iristen dira: oso gaizki tratatuta, askotariko arazoekin.
- Erruduntasun sentimendua oso nabarmena da haiengan. Askok sufritzen dute.
- Tratu txarren ondorioz etortzen dira asko, eta oso bizitza gogorak izan dituzte
- Haien jatorriko herrialdeetako kultura dakarte askok. Eta horrek egoera larriagotu dezake.

EGUNEROKO LANEAN IZATEN DITUZTEN ARAZOAK

- Gizarte-larrialdietarako Udal Zerbitzua larrialdiez arduratzen da eta oinarrizko prestazioak eskaintzen ditu. Genero-indarkeriako egoerak larrialdizat hartzen dira (bileraren aurreko hilean 140 kasu egon ziren). Dena den, oinarrizko prestazioak eskatzera joaten direnen artean ere badago genero-indarkeria jasan duenik.
- Larrialdietan emakume gehiago artatzen dituzte gizonak baino. Eta oinarrizko prestazioetan, alderantziz.
- Larrialdi kasu gehienak adingabeak dituzten emakumeak dira, genero-indarkeria eta guzti askotan. Zenbait emakumek urte asko daramate egoera berean.
- Aurten, emakumeak buru dituzten familia asko azaldu dira.
- Orain arte, familiei laguntza eskaintzea ohiz kanpoko zen eta sistema ez zegoen espezifikoki prestatua. Egoera horiek areagotu badira ere, oraindik ez dago erantzun egokia emango dien zerbitzurik.
- Familia-taldean mota desberdinei egiten diete arreta:
 - Kanean denbora asko daramaten emakume kronifikatuak, erakundeek edo familiak zaintzen dituzten seme-alabak dituztenak.
 - Bilborekin lotura duten emakumeak, DSBEa kobratzen zutenak eta galdu egin dutenak. Utzarazpen prozesu baten ondoren, kanean geldituko dira.
 - Seme-alaba eta guzti etorri diren emakumeak, jatorrizko herrialdeetan zuten baino bizitza hobea baten bila.

- Udalaren eta Claret Sozial Fondoa fundazioaren arteko harremanaren bidez, erantzuna ematen hasi zaie bi premia motari:
 - Adingabeak dituzten eta ostatua behar duten familiak
 - Familien larrialdi egoerak
- Geldituko diren ere ez dakiten iritsi berriak daude, bai eta hemen gelditzea erabaki dutenak ere: ez dituzte beharizan berdinak, eta eman beharreko arreta ere ez da berdina.
- Elexabarritik 40 bat familia pasa dira.
- Gehienetan, familiak Elexabarritik ateratzen direnean, ez dakigu nora doazen: irten eta desagertu egiten dira.
- Bertara jotzen duten zenbait pertsonaren premiak eta ezaugarriak ez datoz bat bete beharreko araudiarekin. Horrek asko mugatzen du eta, ondorioz, pertsona batzuk behar duten laguntza jaso gabe gelditzen dira.
- Zenbait emakumek, kalean ez gelditzeagatik, tratu txarrak pairatzen dituzte. Kasu horiek ez dira bat ere agerikoak.
- Emakume batzuk, haurrak babesteko, akordio bat egiten dute gizonen batekin eta harreman sexualak izaten dituzte harekin, aterpearen truke. Egoera horretan daude aspaldiko urteetan laguntza jaso duten emakume asko.
- Ardurapean adingabeak dituzten beste emakume batzuek ez dute aterpetxe batean egon nahi, uste dutelako ez dela toki ona seme-alabentzat. Alternatiba gizonen batekin egotea da, nahi ez badute ere. Horrek, batzuetan, ezegonkortasuna eta gaixotasun mentalak dakartza.
- *Ez dago alternatiba askorik ardurapean adingabeak dituzten emakumeentzat.*
- *Bilbon, baliabideetako asko erabili ahal izateko, beharrezkoa da hiriarekin lotura bat izatea aurretik. Oso aukera gutxi dago erroldatu gabeko emakume iritsi berrientzat. Dauden apurrak gizarte-erakundeen bidezkoak dira eta beteta egon ohi dira.*
- *Gainera beste arazo batzuk ere dituztenek (gaixotasun mentala, toxikomania, e.a.) ez dute laguntza-baliabiderik. Horietako bat bakarrik dutenek zerbitzu espezifikotara jo dezakete. Oso profil puruak eskatzen dira, beraz.*
- *Ez dago larrialdietarako ostaturik familientzat eta emakumeentzat. Egoera horiei ematen zaien erantzuna: hotel bat edo presazko zerbitzu ordaintzea.*
- *Eremuak eta baliabideak ez daude egokituta emakumeentzat. Berdin tratatzen dira gizonak eta emakumeak. Emakume askok indarkeria jasan dute kalean eta, zenbait kasutan, erasotzaileak izan diren gizonekin batera bizi behar dute.*
- *Zenbait alternatibek ostatuaren beharra asetzen dute, baina ez dituzte eskaintzen oso beharrezkoak diren beste zerbitzu batzuk, segurtasunarekin eta loturarekin zerikusia dutenak, besteak beste.*

GIZARTE-LANGILEEN ETA GIZARTE-LARRIALDIETARAKO UDAL ZERBITZUAREN PROPOSAMENAK ARRETA HOBEA ESKAINTZEKO

1. «Emakumeentzako baliabide espezifikoak sortzea.»
2. «Ostatuetan, beharrezkoa izango litzateke gizonentzako eta emakumeentzako tokiak bereiztea.»
3. «Familientzako larrialdietarako tokiak sortzea. Hori gabezia bat da.»
4. «Jarraipen bat egitea, aterpetxetik ateratzen direnean familiak nora doazen ikusteko. Koordinazioa egin beharko litzateke Udalaren eta Aldundiaren artean. “
5. «Genero-indarkeriako egoeretatik haratago joatea. Emakume askok beste gorabehera batzuk dituzte eta ez zaie erantzunik ematen. Egoera konplexuei erantzuna ematen saiatzea.»
6. «Ostatu-baliabide asko ez daude prestatuta osasun mentaleko arazo larriei aurre egiteko. Hori arazo bat da eta baliabide espezifikoak behar dira.
7. «Ez zaie laguntzarik eskaintzen emakumeen arazo espezifikoak dituzten emakumeei: haurdun daudenak, erditu berriak, laguntza emozionala.»
8. «Aterpetxea ez dago jaioberrientzat prestatuta.»
9. «Adingabeak dituzten senar-emazteak iristen dira. Baditugu amarentzako eta adingabeentzako baliabideak, baina aitari kanpoan gelditu behar duela esan behar diogu. Ez dago baliabiderik horretarako.»
10. «Ez dago langilerik, instalaziorik, baliabiderik, ezta familientzako egokitutako ordutegi-rik. Ez dago familiarteko girorik, lasai egoteko. Ez daude prestatuta familiei laguntza eskaintzeko.»
11. «Erantzuna epe ertain-luzerakoa izan behar da, esku-hartzea eraginkorra izan dadin.»
12. «Berdintasuna eta Gizarte-ekintza zinegotzigo desberdinetan daude. Hori dela eta, zailagoa da tratatu txarrak jasaten dituzten eta bestelako arazo gehigarriak dituzten emakumeei laguntza eskaintzea.»

GOMENDIOAK

GOMENDIO OROKORRAK

Egindako landa-lanetik atera daitekeen ondorioetako bat da etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzuten dieten baliabideak eta zerbitzuak gizonezkoentzat pentsatuta daudela.

Emakumeentzako baliabide espezifikoak beren familia-erantzukizunengatik edo indarkeria edo tratatu txarrak bizi izan dituztelako artatzeko diseinatzen dira.

Ez dago etxerik gabeko emakumeei arreta egiteko baliabide espezifikorik.

Zerbitzu mistoak, egia esan, gizonentzako baliabideak dira, emakumeak onartzen dituztenak. Ez daude pentsatuta emakumeen behar espezifikoak asetzeko, eta bertara iristen direnak dagoen egoerara egokitu behar dira.

Hori horrela da, ez delako aintzat hartzen edozein gizarte-politikak edo baliabidek genero-ikuspegia izan beharko lukeela.

Ondorioz, honako gomendio orokor hauek egin ditzakegu:

1. Zentro, programa eta eremu generikoek ere, nahiz eta gizonezkoak artatu gehienbat, genero-ikuspegia txertatu beharko lukete, maskulinitate eredu desberdinak ulertu eta horietan esku hartu ahal izateko.
2. Zentro mistoetan eremu seguruagoak eta intimoagoak sortzeko egin daitezkeen banaketa fisikoez gain, funtsean, laguntza emateko ereduan eta profesionalen lanean jarri behar da arreta, eta emakumeen premiak beti hartu behar dira kontuan.
3. Emakumeen beharrak eta eskariak konplexuak dira eta aldatu egiten dira, eta gizarteratze prozesuak luzeak eta zailak izan ohi dira. Horregatik, arreta integrala eskaintzea komeni da, bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeen beharrei heltzeko. Ezinbestekoa da esku-hartzeen plangintza ikuspegi multidimentsional batetik egitea eta sarean jardutea, arlo desberdinetako profesionalen parte-hartzeko aukera izan dezaten.
4. Arreta indibidualizatua behar da, eta aintzat hartu behar dira emakumeen beharrak, itxaropenak eta gaitasunak, haien autonomia pertsonala eta ahalduntzea hobetu dezaten. Horretarako, lagun egite pertsonala eskaini behar da, arreta integraleko eredu bat garatzeko, pertsona ardatz hartuta.
5. Bizitegi-bazterketaren gaiari heltzeko moduak genero-ikuspegi transbertsala eduki behar du, diseinatzen diren gizarte-politika, araudi eta programetatik hasi eta esku-hartzeen plangintza egiteko moduraino. Emakumezkoen eta gizonezkoen ibilbideak, premiak eta interesak desberdinak direnez, kontuan hartu behar da hori, eta lan egin behar da alde edo diferentziak horien gainean, berdintasuna lortzea funtsezko helburu.
6. Funtsezkoa da dauzkagun baliabideak egokitzea edo familientzako baliabide espezifikoak sortzea. Batez ere, ardurapean adingabeak dituzten emakumeentzat.
7. Garrantzitsua da arazo desberdinak (droga-mendekotasunak, gaixotasun mentalak, indarkeria, e.a.) dituzten emakumeei laguntza emateko zerbitzuak diseinatzea.
8. Etxerik gabeko emakumeen problematika ezagutzera emateko lan egin behar da eta proaktiboagoak izan behar dugu egoera horiek aurkitzeko.

GOMENDIO ESPEZIFIKOAK

1. Emakumeentzako eremuak egokitzea aterpetxeetan.

Beharrezkoa da emakumeentzako eremu atseginagoak eta goxoagoak sortzea aterpetheen barruan. Era berean, eremu babestuak eta seguruak sortu behar dira, emakumeak hobeto senti daitezen, gizonekin batera egon beharrik gabe. Banakako laguntza eskaini behar da.

Eremu horiek pribatutasuna eta intimitatea izateko eskubidea bermatu behar diete emakumeei. Ezinbestekoa da emakumeentzako oinarrizko higiene-baliabideak edukitzea.

2. Etengabeko prestakuntzarako eremu bat sortzea. «Ahalduntzeari eta maskulinitateei buruzko eskola» bat.

Prestakuntzarako, trebakuntzarako eta parte hartzeko eremu bat, bai Bizitegiko langileentzat, bai bazterketa-arriskuan dauden kolektiboetako emakume eta gizonentzat, haiekin egiten baitu lan Bizitegik.

Honako jarduera hauek egin litezke: Bizitegiko langileentzako prestakuntza-ikastaroak, genero-ikuspegia sartzeko erakundearen programa eta jardueren diseinuan, gauzatzeko prozesuan eta ebaluazioan; berdintasunaren gaiari buruzko ikastaro espezifikoak; maskulinitate berriei buruzko ikastaroak, erabiltzaileentzat, maskulinitate-eredu tradizionalak eztabaidatzeko eta indarkeria matxistari zilegitasuna kentzeko; edo emakumeentzako gaikuntza-tailerrak genero-indarkeriako egoerei aurre egiteko. Era berean, beharrezkoa izango litzateke prestakuntza-saioak egitea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei nola lagundu eta haiekin nola lan egin jakiteko.

3. Emakumeentzako soilik diren taldeak edo eremuak sortzea.

Emakume-talde bat, eduki espezifikoarekin, seguru senti daitezen eta konfiantzazko giro bat sor dadin.

Babes-taldeak sor daitezke, erlaxaziorako taldeak, antzerkia, bideoforoa, irteera kulturalak... eta har dezatela parte nahi duten horretan.

Emakumeentzako soilik diren programekin biderkatu egiten dira haien artean babes-harremanak sortzeko aukerak. Babes-harreman horiek oso garrantzitsuak dira ahalduntzeko eta bizitza autonomo bat eraikitzeko.

Era berean, garrantzitsua da emakumeek norekin hitz egin nahi duten hautatu ahal izatea eta laguntza psikologiko eta emozionala jasotzea.

4. Emakumeentzako laguntza integrala.

Funtsezkoa da profesionalek gaitasuna, formazioa, prestakuntza eta eskarmentua izatea, emakumeei bere prozesu guztian zehar lagun egiteko modua izan dezaten.

Komeni da laguntza hori behar adina baliabidetatik eskaintzea eta baliabideen arteko koordinazioa izatea, emakumeei gizarte-inklusioko prozesuan laguntzeko. Laguntza psikologikoa, egoitza-baliabidea...

Hirugarren zatia

BIZITEGI-BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEKIN IZANDAKO LAN-ESPERIENTZIAK

1. MUJEREANDO (SEVILLA)¹

Mujereando taldearen antzerki tailerra 2013ko urrian sortu zen, Sevillako RAIS Fundazioaren barruan. Sevillan bizi diren etxerik gabeko emakumeei zuzenduta dago, herrialde eta kultura desberdinetakoak. Asmoa zen libre izateko eremu bat sortzea, sormena landu ahal izateko lehiarik eta estereotiporik gabe eta inor epaitu gabe.

Carmen Tamayo gizarte-langileak izan zuen emakumeekin lan egiteko ideia hori, Sevillako RAIS Fundazioaren eguneko zentroan zeuden etxerik gabeko emakumeekin lan egiten ari zela. Konturatu zen ez zela genero-ikuspegitik lan egiten, zailtasunak baitzeuden emakumeak zentroko eguneroko lanarekin uztartzeko.

Antzerki talde bat egiteko ideia proposatu zien, emakumeentzat soilik. Helburua zen emakumeak babestuta eta aske sentitzeko eremu bat sortzea, begirada eta epaietatik urrun, entzuten zaiela senti zezaten; haien hitzak garrantzia izan zezan.

Idea horretatik sortu zen Mujereando, berrikuntza sozialerako proiektu bat, antzerkia tresna terapeutiko gisa erabiltzen duena hobekuntza pertsonaleko egoerak bizi izan dituzten emakumeentzat. Autoestimua areagotzeko eta bizitako esperientzia gogorrek eragindako mina gainditzeko tresna bat da.

Adierazpen artistikoaren aldeko apustua egiten dute, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko eragile gisa. Partaide bakoitzaren potentziala ezagutzeko abiapuntu gisa eraturako inguru batean. Laguntza-testuinguru bat, haien blokeoak, beldurrak, lotsak-eta lantzea ahalbidetuko diena, bai eta benetan diren bezalakoak izatea oztopatzen dien guztia ere. Pertsonak, pertsonengatik eta pertsonentzako egindako antzerkia da.

Hasieran izan zuten zailtasun handiena izan zen errutinak sortzea eta emakumeak aldi behin etortzen jarraitzea. Horregatik, konfiantzazko eremuak sortzen hasi ziren: erlaxazio klaseak, musika eta dantza klaseak...

Astean bitan bildu, eta pixkanaka hasi ziren haien sentimenduez hitz egiten eta irekitzen; konturatu ziren gauzak kontatzeak askatu egiten zituela, agerikotasuna ematen ziela eta protagonista bihurtzen zituela.

Antzezlanen gidoiak sortzeko, haien esperientzia eta sentimenduetan oinarritzen dira eta haiek erabakitzen dute zer kontatu nahi duten. Elkarrekin idazten dute eta testuak antzeztan dituzte, ikus ditzaten, ba eta haien errealitatea partekatzeke ere.

Hala, antzerkiak ahalduzko prozesuan aurrera egiten laguntzen die, bai eta haien buruarengan konfiantza izaten ere, autoestimua areagotzeaz bat.

Carmen Tamayo gizarte-langilearen eta taldeko zuzendariaren arabera, «proiektu hau sentimenduak askatzeko eremu bihurtu da, emakume hauek eguneroko bizitzan hain faltan duten askatasunez beteta dagoena. Klase bakoitza katarsi bat izan da: iritsi, eta aste osoko gauza txarrak botatzen zituzten. Duten potentziala iristeko abiapuntu bat, blokeoak, behar bezala ezagutu

¹ Carmen Tamayori egindako elkarrizketa pertsonaletik ateratako informazioa

eta lantzeko beldurak, lotsak... bai eta benetan diren bezalakoak izatea oztopatzen dien guztia ere. Sistema honek fikzioan antzeztea errazten die, bere bizitzen subjektu aktibo bihur daitezten. Antzerkia tresna bat da, gure buruari eta ondokoari buruzko aurkikuntzak egiteko, desirak argitu eta adierazteko eta gainerakoak ulertzeko; zirkunstantzia mingarriak aldatzeko eta bakea ematen dutenak indartzeko. Tailerrean parte hartu duten emakume guztiek indarkeria matxista jasan dute inoiz. Oso presente dute indarkeria, eta berez ateratzen zaien zerbait da.”

Emakume horien koordinatzaileak aitortzen du proiektuaren zailtasun handiena taldea kohesionatzea izan dela, oso heterogeneoa delako eta askotariko profilak daudelako bertan. *«Hamarkada bat baino gehiago daramat antzerkiarekin lan egiten tresna terapeutiko gisa eta hau izan da erronkarik konplexuena. Emakume hauek indarkeria baliatzen dute kalean komunikatzeko, indartsuenak irabazten baitu oihan moduko horretan. Normalean, defentsiban egoten dira; edozein iruzkin hartzen dute erasotzat. Keinu soil batek ekaitza eragin dezake. Horregatik, ezinezkoa da klaseak prestatuta edukitzea, beti ateratzen baitira inprobisatzera behartzen gaituzten hamaika istorio».*

Carmenen iritziz, antzerkia tresna terapeutiko itzela da kasu horietan: *«Kale gorrian bizi bazara, esan nahi du dena galdu duzula dagoeneko. Emakume hauek mila puskatxotan txikituta daude; autoestimurik gabe iristen dira, ezer balio ez dutela sinestarazi baitiete, eta azkenean etsi egiten dute hori dela benetan merezi dutena, askotan errepikatu dietelako. Eremu bat behar dute horretaz hitz egiteko, egoeraz jabetzeko eta ulertzeko hori ez dela egia. Haien artean konturatzen hasten dira eta hitza hartzen dute. Ahalduzko balio die. Hori da «Mujereando» proiektuaren helburu nagusia: kalte egiten diena ateratzeko edo ondo sentiarazten diena partekatzeo askatasuna dutela sentitzea. Hemen ez dugu inor epaitzen ezta kritikatzeko ere; aski dute horretaz, gizarteak egiten baitu hori».*

Emakume horientzako, Mujereando bezalako antzerki talde batean parte hartzea bide egokia da, babesa izateko, nahi dutena adierazteko eta aurrera egiteko, oso baldintza txarrak badituzte ere. *«Carmen bezalako profesional batekin lan egitea, sortzea, iragana alde batera uztea nahiz eta iragana lantzen ari garen eta antezlanetan horretaz hitz egiten dugun, blokeoak kentzea, adieraztea... niretzako antzerkia dena da»* kontatzen du Ramonak. Sei hilabete daramatza antzerki taldean, baina dagoeneko antzerkian ibilia zen bere jatorrizko herrialdean, Alemanian.

Emilia aldi berean sartu zen taldera: *«Niri jendea ezagutzeko balio izan dit, eta babesa izateko eta hemen gaudela eta hitza badugula adierazteko modu bat da, nahiz eta isiltasun osoan murgildutako errealitate batean bizi garen. Ez baduzu hitz egiten, ez duzu sentitzen eta, beraz, ez zara existitzen; antzerkia existitzeko modu bat da. Ondo sentiarazten naueko egiten dut, bestelako asmorik gabe; azken finean, nire bizitza jada tragikomedia bat da».* Antzerki talde batean parte hartzeak abantailak baditu ere, *Emiliak gogorarazten digu horrelako zerbait egitea bereziki zaila dela haientzat, kale gorrian bizitzea oso nekagarria delako. Dena den, ematen dizkion onurek pisu gehiago dutela esaten du: «Niretzako, duintasunez negar egiteko modu bat da antzeztea».*

«Urduritasunari eta beldurrei aurre egiteko froga bat da... eta hori da pertsonen oztopoak gainditzen laguntzen diena», dio Ramonak.

Elkarrekin sortzen dituzten testuetan, Mujereando taldeko partaideen bizitzetako oroitzapenak, emozioak eta pasarteak jasotzen dira. Metodo horren bidez, Carmenek formula bat aurkitu du emakume bakoitza bere emozioekin konektatu dadin eta kideen esperientzietara hurbildu. *«Klaseak tristurarekin hasten dira»*, azaltzen du, *«barruan minen bat dakarrenak atera egiten du eta gainerakoek enpatia sentitzen dugu; ispilu bat bezala da. Eta egun horretan indartsuen sentitzen direnek gainerakoak lasaitzen dituzte. Horrela hasten gara eta gero inprobisatzeari ekiten diogu. Haiek dira testuak idazten dituztenak eta, ondoren, nik forma teatralagoa ematen diet».*

Baina Mujereando ez da taldea osatzen duten antzezleen ahalduntzerako eta garapen pertsonalerako tresna erabilgarri bat soilik. Emakume horiei hitza ematea da: kalean bizitzearen zaitasunen inguruan sentibilizatu eta kontzientziatzeko balio du, baita estereotipoak hausteko ere².

² Iturria: RAIS FUNDAZIOA eta Píkara Magazine

Oraingoz hiru ikuskizun eskaintzen dituzte errepertorioan. Lehenengoa «Por qué?» (Zergatik?) izan zen; jasaten duten indarkeriaren aurkako garrasi bat. Ildo beretik sortu zuten «Invisibles» (Ikusezinak) performancea; egunero bizi duten ikusezintasunaren antzezpene izugarria. Astebetean idatzi zuten eta askotan inguruan sentitzen duten «ezereza» hezurramitzearen emaitza da. Azkenik, «El quejío de una diosa» (Jainkosa baten aienea) orain arte egin duten lanik luzeena da.

Informazio gehiago, hemen:

<https://www.youtube.com/watch?v=CFeNgJKKqLQ>

<https://www.youtube.com/watch?v=me6KbnyQ5A4>

https://www.youtube.com/watch?v=aFEQiR_UBOA

2. SAN ISIDRO (MADRIL) ATERPETXKO ETXERIK GABEKO EMAKUMEEN SINTOMATOLOGIA EMOZIONALEAN ESKU HARTZEA

Etxegabetasunaren prebentziorako eta arretarako Madrilgo udalaren 2015-2020 estrategiaren barruan sortu da proiektua. Haren neurrien artean, 6. helburua nabarmentzen da ahalduntzearen arloan, «Bizi-ohitura osasungarriak sustatzea udal-sareak artatzen dituen etxerik gabeko pertsonen artean»; zehazki, 2. jarduketa: «Azterketa ginekologikoak sustatzea udal-sareak artatzen dituen emakumeen artean.» Era berean, azpimarratzekoa da 2. helburua, «Bermatzea etxerik gabeko pertsonak bakar batek ere ez duela kalean lo egingo haren beharretara egokitzen den baliabiderik ez dagoelako»; zehazki, 3. jarduketa: «Laguntzarako udal-sarearen analisia egitea artatzen dituzten pertsonen profilen arabera, eskainitako ostatu mota haien beharrei eta bizitza-uneari egokitzeko.»

San Isidro aterpetxea udalarena da eta 266 leku ditu; 171, gizonentzat, eta 83, emakumeentzat. Oinarrizko zerbitzuez gain (ostatua, jatekoa, e.a.), gizarte-arreta, laguntza psikologikoa eta medikoa eta lanbide-terapia eskaintzen dira bertan.

Esku-hartze emozionala aterpetxean ostatua hartu duten emakumeekin egiten diren bileren bidez eskaintzen da, nor bere burua zaintzearen eta psikohigienearen ikuspegitik, hortik aurrera etxerik gabeko emakume bat izateak dakartzan bizipen emozionaleri buruz hitz egiteko eta esperientziak partekatzeko. Taldea bi emakume psikologok dinamizatzen dute eta, taldearekiko atxikimenduari eta landutako gaietarako dagokienez, emaitza bikainak ematen ari da.

Ekimenak hilabete gutxi daramatza martxan; beraz, ez dago hari buruzko ebaluazio sakonik.

3. MORADAS ELKARTEA EMAKUMEEN GIZARTE-INKLUSIOAREN ALDE (MADRIL)

Moradas elkarte irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa sortu zen, fundatzaileen esperientzia eta ahaleginak bateratuz, urteetan zehar zerbitzu eta erakunde sozial desberdinetan gizarte-bazterketaren eta esku-hartzearen arloan lan egiten ondoren.

Feminismotik, ikerketatik, sentsibilizaziotik, prestakuntzatik eta esku-hartze sozialetik lan egiteko sortu zuten Moradas, feminismoa ulertuta kokatzeko modu gisa, bizitzan ez ezik, lan egiteko modutzat ere, orobat mundua eraldatzeko bidetzat.

4 lan-eremu dituzte:

1. Ikerketa:

Ikerketa Sailak gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeen errealitatea ezagutu nahi du, zabalkundea emateko eta zerbitzuak eskaintzeko, emakume haien premietara eta administrazio publikoen, erakunde pribatuaren eta herritarren beharretara egokituak.

2. Prestakuntza:

Prestakuntza Saila laborategi berritzaile bat bezala sortu da eta aldaketa soziala martxan jartzeko tresna garrantzitsuena, hezkuntza, hobetzerak eta inplementatzera bideratuta dago.

Prestakuntza-ikastaro batzuk egin dituzte:

- Genero-indarkeriako kasuetan esku hartzearen hastapenak
- Etxerik gabeko pertsonen kasuetan esku hartzeko estrategiak.
- Zailtasun sozialak dituzten emakumeen kasuetan esku hartzeko tresnak.

3. Sentsibilizazioa:

Moradas proposamenaren funtsezko zutabeetako bat sentsibilizazioa da, ziurtatu egiten baitu mezua gizartean partekatuko dela eta ondo iritsiko dela puntu bateraino, zeinean beste errealitate batzuk, urrutiegikoak, ez liratekeen imajinario kolektiboan kabituko.

Etxerik gabeko emakumeei buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza jardunaldiak egin dituzte.

4. Esku-hartze soziala.

Moradas elkarteak Esku-hartze Saila sortu zuen, ondo jabeturik emakumeak direla euren prozesuen protagonista, eta emakumeen artean sormena eta sorkuntza sustatuta, hezkuntzaren bitartez.

Badituzte lan-esperientzia batzuk etxerik gabeko emakumeekin: emakumeen arteko laguntza-talde bat, El Madrid de las Mujeres Invisibles aldizkari digitala (Moradas elkartearen webgunean dago: www.asociacionmoradas.org/revista-digital), kaleko lana etxerik gabeko emakumeekin eta, azkenik, beste proiektu bat abiatuko dute talde bat egiteko beste baliabide batzuetatik bideratutako emakumeekin, baita kale gorrian dauden emakumeekin ere. Talde horretan askariak, bideoforoak, bisita kulturalak eta abar egingo dira.

El Madrid de las Mujeres Invisibles proiektuan gai desberdinak lantzen dituzte taldearen bidez: kamisetak edo eskumuturrekoak egiteko tailerrak, etxerik gabeko pertsonen eguna ospatzea... Gainera, idatzizko kontakizunak sortzen ari dira, hala nola poesia, ipuinak, fikzioa, narratiba... Eta txangoak antolatzen dituzte antzerkiak ikustera, museoetara, eta abar.

Oso esperientzia positiboa da eta, haien ustez, beharrezkoa da emakumeentzat, askok indarkeria matxista jasaten baitute kalean edo baliabideetan (berezi aterpetxeetan).

Talde horiek emakumeentzako bakarrik izateak emakume askoren interesa piztu du, eta partaide kopurua eta atxikimendua oso handiak dira. Beti ateratzen den gaietako bat genero-indarkeria da. Guztiek edo ia guztiek jasan dute. Harrigarria da ikustea nola etxerik gabeko pertsonentzako gizarte-baliabideek ez duten problematika hori aurreikusten haien jarraibideetan, etxerik gabeko emakumeen artean kasu ugari badaude ere.

Moradas elkartearen esku-hartze sozialen estiloa feminista eta horizontala da. Ez da batere kontrolatzailea, bai guztiz ahalduntzailea. Haien ustez, hori da modu bakarra emakumeek beren bizitzen agintea har dezaten eta beren kabuz erabakitzen has daitezen; gizarte-zerbitzuek, ordea, ez dute prozesu hori errazten askotan.

Espainiako etxerik gabeko emakumeei buruzko ikerketa bat egin dute ikuspegi feministatik. Hemen irakur daiteke: www.asociacionmoradas.org/investigacion

4. ESPAI ARIADNA-SALIENDO DEL LABERINTO ETA METZINERS PROIEKTUA (BARTZELONA)

Salud y Comunidad fundazioak 25 urte baino gehiago daramatza ikerketan, prebentzioa-lanetan, esku-hartzen eta sentsibilizazio-lanetan, osasun- eta gizarte-arazo zenbait direla eta, gizarte-bazterketa arriskuan edo egoeran dauden kolektiboek bereziki eragiten dietenak. Helburua beti izan da pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta gizarteratzea erraztea komunitatearen osasuna eta ongizatea sustatuz.

ZER DA ESPAI ARIADNA?

Espai Ariadna – Saliendo del Laberinto 2013an sortu zen, genero-indarkeriak eta adikzioek emakumeengan eta beren seme-alabengan eragindako arazoei egoitza-tratamendua emateko beharrari erantzuteko ekimen gisa.

Aldi baterako harrera-zerbitzu bat da, hirikoa, eta arreta integrala eskaintzen die, ingurune seguru batean, indarkeria matxistari edo droga-mendekotasun egoerei heltzeko esku-hartze eremu integral bat behar duten emakumeei, bakarrik ala seme-alabekin. Baliabide hori indarkeria jasaten duten edo iraganean indarkeria jasan duten eta drogak kontsumitzen dituzten edo kontsumitu izan dituzten emakumeei (bakarrik ala seme-alabekin) dago zuzenduta.

Zerbitzuak 8 familia-unitate hartzeko gaitasuna du eta 19 leku ditu guztira. Espai Ariadna baliabide aintzindaria eta bakarra da estatu mailan eta hirugarrena Europan; izan ere, Finlandian eta Suedian badaude horrelako bi baliabide. Kataluniako Generalitatearen eta Bartzelonako udalaren babesa eta laguntza jasotzen du.

Helburuak:

- Jabetzeko eta motibatzeko prozesua erraztea, artatzen dituzten emakumeen egoera orokorra aldatzeko, bi problematikak aldi berean landuz.
- Artatutako emakumeei beharrezko tresnak eskaintzea eta osatze-prozesu integralean (biopsikosoziala eta hezkuntzako) laguntzea, ikuspegi profesional espezializatu batetik.
- Haur eta nerabeei laguntza eskaintzea eta agerian jartzea haiek ere osatze-prozesurako eta prebentziarako arreta espezifiko behar duten subjektuak direla.
- Emakumeei, adikzio-arazoei, gaixotasun mentalei, haurrei eta abarri arreta eskaintzen dieten sareen artean zubi-lanak egiten dituen zerbitzu bat izatea.
- Bi sareetan (indarkeriarena eta droga-mendekotasunarena) sartzeko irizpide murriztaileak direla eta, baliabideetatik kanpo gelditzen den kolektibo baten beharrak asetzea.

Zer eskaintzen dute?

- Diziplina anitzeko lantalde bat, askotariko prestakuntza espezializatua duten profesionalen osatua (psikologia, gizarte-lana, gizarte-heziketa, gizarteratzea eta psikiatria).
- Leku atsegina eta seguru bat: isilpeko helbidea duten hiru pisu, emakumeen eta seme-alaben egonaldia errazteko pentsatuta dauden instalazio, altzari eta dekorazioekin.
- Pertsona da arreta-ereduaren ardatza.
- Tratamendu pertsonalizatua eta integrala, bizitako indarkeriak, adikzioek eta horrekin lotutako problematikek eragindako kalteen ondorengo osatze-prozesu osoan zehar.
- Emakume, haur eta nerabeei eta haien arteko harremanari eskainitako arreta.
- Bakarkako arreta eta taldekakoa.

Esku hartzeko metodologia:

Esku-hartze eredu hiru ardatz nagusitan oinarritzen da. Ardatz horiek elkarri konektatuta daude eta honako tresna eta estrategia metodologiko hauetan funtsatzen dira:

1. Arreta emakumeei:

- Arreta integrala, emakumea bizirauleztat hartuta.
- Egoera hori eragiten duten askotariko faktoreei arreta eskaintzea.
- Malgutasuna eta etengabe aldatzen ari den errealitate bati egokitzea.
- Indarkeria matxistako prozesu eta dinamiketan esku hartzea.
- Babes- eta erresilientzia-faktoreak identifikatzea.
- Mantendutako trebetasun eta gaitasunak indartzea (erresilientzia). Aniztasuna errespetatzea.
- Emakumeak bere prozesuan parte hartzea eta erantzunkidea izatea.

2. Arreta haur eta nerabeei:

- Erresilientzia lantzea, balioetan oinarritutako heziketa eta hezkidetzak, emozioak identifikatzea eta adieraztea, eta gatazka indarkeriarik gabe ebaztea.

3. Arreta emakumeei, ama diren aldetik; amaren eta seme-alaben arteko harremana:

- Aproposa denean, ahalduntzearen eta autonomiaren printzipioa garatzea.
- Aitatasun eta amatasun eredu positiboak eta berdintasuneko harremanak indartzea.

Modu transbertsean, estrategiak honako hauek dira:

- Familia bakoitzari erreferentziazko pertsona bat esleitzea.
- Instituzioen eta erakundearen transbertsalitatea, koordinazioa eta kooperazioa.
- Eragina bermatzeko, kalitatezko erantzunak ematea eta errealitatea ondo ezagutzea.
- Diziplina anitzeko esku-hartzea.

METZINERES PROIEKTUA: ENTORNOS DE COBIJO PARA MUJERES QUE USAN DROGAS SOBREVIVIENDO A VIOLENCIAS (BARTZELONA)

Salud y Comunidad fundazioaren ekimen hau 2017an sortu zen, drogak kontsumitzen dituzten eta indarkeria jasan duten emakumeei laguntza eskaintzeko asmoz, emakume haiek berak jarrita osatze-prozesuen erdigunean, autonomia sustatuta eta osasun fisiko, emozional eta mentala hobetzen laguntzeko.

Metzineres proiektua planteamendu holistiko eta individualizatu baten ondorioz proposatzen da eta La Caixa Gizarte Ekintzaren babes du, baita Kataluniako Generalitateko Lan, Gizarte-ongizate eta Familia Sailarena eta beste erakunde batzuen ere; besteak beste, Institut Català de les Dones (ICD) eta Barcelona Activa.

Sartzeko irizpideak betetzen dituzten emakume guztiak hartzen ditu programak, kontuan hartu gabe zein puntutan kokatzen diren kontsumoaren ibilbidean edo zein harreman duten indarkeria-egoerekin, erantzunak egokituta bakoitzaren interes eta itxaropenen arabera.

Esku hartzeko eredu berritzaile bat hartzen da abiapuntutzat, bazterketa egoerak kronifikatzea galarazteko helburuarekin, eta erantzun sortzaile eta malguak eskaintzen zaizkie emakume horiei, aurre egin diezaieten erakunde hutsuneei. Ildo horretatik, emakume horien bazterketaren egiturazko kausetan eragin nahi du proiektuak, eta arreta soziosanitarioko zerbitzu normalizatuera iristeko oztupoak gutxitu.

Aipatu beharra dago drogak kontsumitzen dituzten eta indarkeria jasan duten emakumeek oztupo handiak dituztela indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako Arreta eta Osatze-prozesu Integralerako Sarean eta Droga-mendekotasunen Arretarako Sarean sartzeko.

Horregatik, proiektuaren helburuen artean dago kalitatezko baliabide eta zerbitzu gehiago eskaintzea arreta-sare desberdinetan, bere proposamen espezifikoen bidez Programak proposatzen du arreta soziosanitarioko zerbitzuek erabiltzaileak bideratzea, programaren xedeko emakume horien ezaugarri espezifikoak aintzat hartuz.

Metzineres proiektuaren asmoa da aldi berean elkarri lotutako gizarte-posizio desberdinak izan ditzaketen pertsonengana heltzea. Zerrenda zehatz eta baztertzaila bat egiteko asmorik gabe: emakume gazte edo zaharrak, iritsi berriak eta familiaren edo gizartearen babes gutxi edo batere ez dutenak; LGTBIQ (lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual edo queer) gisa identifikatzen diren etxerik gabeko pertsonak; bizirauteko lan sexuala egiten edo egin dutenak; kartzelan izandakoak, eta dibertsitate funtzionala edo osasun fisiko edo mentalarekin lotutako arazoak dituztenak, bestak beste.

Drogak kontsumitzen dituzten eta indarkeria jasan duten emakumeak baliozko solaskidetzat hartzen dira politika publikoak diseinatzeko, bai eta beste edozein jarduketa eratorritarako ere, baldin eta, zuzen edo zeharka, haien egonkortze- eta osatze-prozesuetan eragina izan badezake. Koherentzia mantenduz, haiekin batera diseinatzen, martxan jartzen eta ebaluatzen da programa, eta emakume haiekiko batzuk esku-hartze taldeetan txertatzen dira.

Erronka nagusietako bat du emakume horiekiko aurreiritziak, estigmak eta diskriminazioa gutxitzea, politikak, legeak eta araudiak garatu, ezarri edo aldatzeko erabakietan eragina izateko.

Horretarako, arriskuak eta kalteak gutxitzeko estrategia bat proposatzen da, giza eskubideen ikuspegia eta genero-transbertsalitatea barne hartzen dituen, aurreiritzirik gabe, eta 3 ingurunetan garatzen dena:

- **DE MOMENT:** hainbat aukera eskaintzen ditu nork bere burua zaintzeko, konfiantzazko harremanak sortzeko, ezagutzak trukatzeko, autodefentsarako, elkartasunerako eta elkarri babes emateko.

- **L'OSADA:** arlo produktiboari lotutako eremua, helburutzat hartuta lan egiteko eta hazkunde profesionalerako aukerak eskaintzea esperientzia faltagatik edo ikasketamaila baxuagatik lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeei.
- **LA COBERTA:** egoitzaren arloa lantzen du, helburutzat hartuta alternatiba bat sortzea intimitatea, deskantsatzeko aukera eta babesa bermatzeko etxegabetasun egoeran dauden edo haien etxea utzi behar izan duten emakumeei.

2017ko ekainetik abendura, 56 emakume joan ziren zerbitzura, 18 eta 62 urte artekoak. Heziketa-, prestakuntza- eta aisialdi-jardueretan parte hartu zuten; osasun-laguntza edota gizarte-laneko arreta jaso zuten, baita aktiboki lan egin ere arlo desberdinetako beste elkarte eta kolektibo batzuekin batera (auzo mailakoak, nazionalak eta nazioartekoak) ekintza komunitario eta aldarrikatzaileak antolatzen dituzten askotariko sareetan.

2017ko urriaz geroztik, Metzineres proiektuak badu lokal bat Bartzelonako Raval auzoaren erdigunean, astelehenetik ostiralera irekita. Gainera, hilean igande batez, auzoko bigarren eskuko azokan parte hartzen du, eta irteera kulturalak edo mendiko txangoak ere egiten dituzte. Gaur egun, Trinitat Vella auzoko pisuan, desintoxikatze eta heroina eta alkohola kontsumitzeko ohitura kentzeko prozesuan dagoen emakume bat bizi da.

Bestalde, laguntzaile-sare zabal batek arlo desberdinetan dituzten ezagutzak eta esperientziak eskaintzen ditu, hala nola diseinuan, elikaduran, kosmetika naturalean, arkitekturan, ile-apainketan eta abar.

Proiektuak lortu nahi dituen emaitzetako bat da ingurune seguruak eskaintzea drogak kontsumitzen dituzten eta indarkeria jasan duten emakumeei, haien bizi-kalitatea, familiako harremanak eta harreman sozialak hobetzeko, modu egonkor eta iraunkor batean. Gainera, genero-transbertsalitatea sustatu nahi da drogen eta droga-mendekotasunen inguruko politika eta planetan, eta kalteen gutxitzea txertatu indarkeria jasan duten emakumeen arretarako sareetan.

Bibliografía

- BAPTISTA, I. (2010) “Women and homelessness”. In: Homelessness research in Europe. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless, 163-186. or.
- COLLINS, P.H. (1993) Toward a new vision: Race, class, and gender as categories of analysis and connection. *Race, Sex & Class*, 25-45.
- CRAMER, H. (2002) Engendering homelessness: an ethnographic study of homeless practices in a post-industrial city. PhD Thesis. Glasgow: University of Glasgow.
- CRENSHAW, K. (1989) Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory and Antiracist Politics, *The University of Chicago Legal Forum*, 139-167.
- DOHERTY, J. (2005) “El origen del sinhogarismo: perspectivas europeas”. *Documentación Social*, 138. alea, 41-61. or.
- EDGAR, B., DOHERTY, J. (2001) *La femme sans-abri en Europe. Parcours, services et expériences*. Bristol: Policy Press.
- EDGAR, B. (2009) European review of statistics on homelessness. Brusela: European Federation of National Organisations Working with the Homeless.
- Emakunde. (2016). EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik. Gasteiz. Emakunde – Instituto Vasco de la Mujer.
- ESCUDERO, M.J. (2003) *Mujeres sin hogar en Granada. Un estudio etnográfico*. Seriea: Feminae, 15. zk. Granada: Granadako Unibertsitateko argitaletxea.
- FARRÉ, M. D. (2014) *Mujeres sin hogar: aproximación teórica a una situación de desprotección, vulnerabilidad y exclusión*. ICPS: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
- FERNÁNDEZ-RASINES, P., GÁMEZ-RAMOS, T. (2013) “La invisibilidad de las mujeres sin hogar en España”. *Revista de Psicología*, 22. lib. 2 zk., 42-52. or.
- LORDE, A. (1984). *Sister Outsider. Essays and Speeches*. Trumansburg. NY: Crossing.
- MARPSAT, M. (2000) “An advantage with limits: the lower risk for women of becoming homeless”. *Population: an English Selection*, 12. lib. 1 zk., 247-291. or.
- MAYOCK, P., SHERIDAN, S. (2012) “Migrant women and homelessness: the role of gender-based violence”. *European Journal of Homelessness*, 12. lib. 1 zk., 59-82 or.
- MOSS, K., SINGH, P. (2015) *Women rough sleepers in Europe. Homelessness and victims of domestic abuse*. Bristol: PolicyPress.
- PEREZ, J.L. (2014) “The cost of seeking shelter: how inaccessibility leads to women’s underutilization of emergency shelter”. *Journal of Poverty*, 18. lib. 3 zk., 254-274. or.

- PLATERO, R.L. (Ed.) (2012) *Intersecciones. Cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Bartzelona: Bellaterra.
- PLEACE, N., BEETHERTON, J. (2013) Measuring homelessness and housing exclusion in Northern Ireland. A test of the ETHOS typology. York, Centre for Housing Policy, University of York.
- PLEACE, N. (2016). Exclusion by Definition: The Under-representation of Women in European Homelessness Statistics. In *Women's Homelessness in Europe* (105-126. or.). Palgrave Macmillan UK.
- PLEACE, N., BRETHERTON, J., &MAYOCK, P. (2016). Long-term and Recurrent Homelessness Among Women. In *Women's Homelessness in Europe* (pp.209-233). Palgrave Macmillan UK.
- REEVE, K. (2006) Homeless women: still being failed yet striving to survive. Londres: Crisis.
- SALES, A., URIBE, J. eta MARCO, I. (2015). Diagnosi 2015. La situació del sensellarisme a Barcelona. Evolució i polítiquesd'intervenció. Bartzelona: Xarxad'Atenció a les Persones Sense Llar de Barcelona.
- SALES, A. eta GUIJARRO, L. (2017). Dones sense llar: la invisibilització de l'exclusió residencial femenina. Barcelona societat. *Revista de coneixement i anàlisi social*, 21, 81-89. or. Bartzelona.
- SAHLIN, I. (2004). Central state and homelessness policies in Sweden: New ways of governing. *European Journal of Housing Policy*, 4(3), 345-367. or.
- VAN DEN DRIES, L., MAYOCK, P., GERULL, S., VAN LOENEN, T., VAN HULST, B., & WOLF, J. (2016). Mothers Who Experience Homelessness. In *Women's Homelessness in Europe* (179-208. or.). PalgraveMacmillan UK.
- VÁZQUEZ, J. J., RODRÍGUEZ, S. I., ROCA, P., eta PANADERO, S. (2016). Sucesos vitales estresantes en mujeres en situación sin hogar. In: *Mujeres e investigación. Aportaciones interdisciplinarias: VI Congreso Universitario Internacional Investigación y Género*, 611-624. or. SIEMUS (Seminario Interdisciplinar de Estudios de las Mujeres de la Universidad de Sevilla).
- WEBB, S. (1994). My address is not my home: Hidden homelessness and single women in Scotland. Edinburgh EH1 1NQ: Scottish Council for Single Homeless.
- WELDON, S. L. (2008). Intersectionality. *Politics, gender and concepts: Theory and methodology*, 193-218.

